



Natxo Urkijo

Zenbait apunte Laudioko euskaraz



Aurkibidea

Eskema orokorra	3
0.- Sarrera	7
0.1.- 1828ko dotrina	7
0.2.- 1858ko dotrina	8
0.3.- Ruth-en liburua	10
1.- Perpaus bakunak	13
1.1.- Perpausaren ordena	14
1.2.- Galde perpausak	19
1.3.- Aginte perpausak	20
1.4.- Perpaus pasiboak	23
1.5.- Perpaus bihurkariak	24
1.6.- Perpaus elkarkariak	26
1.7.- AHAL IZAN, EZIN IZAN, eta BEHAR izan aditz lokuzioen erabilera	27
1.7.1.- AHAL IZAN	27
1.7.2.- EZIN IZAN	28
1.7.3.- BEHAR IZAN	30
2.- Perpaus konposatuak	33
2.1.- Perpaus koordinatuak	33
2.1.1.- Kopulatiboak	33
2.1.2.- Disjuntiboak	37
2.1.3.- Distributiboak	39
2.1.4.- Adbertsatiboak	41
2.1.5.- Ilatiboak	44
2.2.- Menpeko perpausak	53
2.2.1.- Konpletiboak	53
2.2.1.1.- Zehargalderak	54
2.2.2.- Baldintzazkoak	55

2.2.3.- Erlatibozkoak	57
2.2.4.- Moduzkoak	59
2.2.5.- Kontzesiboak	65
2.2.6.- Kontsekutiboak	66
2.2.7.- Denborazkoak	67
2.2.8.- Kausalak	73
2.2.9.- Helburuzkoak	76
Bibliografia	83

Eskema orokorra

Perpaus koordinatuak:

Kopulatiboak:

ETA	BAITA... ...BERE
TA	EZTA... ...BERE
DA	EZ... ...BERE
ETA... ...BERE (BAI)	

Disjuntiboak:

EDO	ALA
-----	-----

Distributiboak:

BATA... BESTEA...	EZ... EZ...
ZELAN... HALAN...	HALAN... ZEIN...

Adbertsatiboak:

BAI(N)A	EZPABERE
EZPADA	BAINO

Ilatiboak:

a.- Emendiozkoak:

BERE	ETA
HONEZAZ GAINETIK	

b.- Hautakariak:

EZPABERE

c.- Aukaritzakoak:

BAI(N)A	BARRIZ
---------	--------

d.- Ondoriozkoak:

BADA	HORREGA(I)TIK
HORREGATIARREN	ORDUAN

e.- Kausazkoak:

ZE	ZE(R)GA(I)TIK... ...(E)ZE
ZE(R)GA(I)TIK	

Menpeko perpausak:

Konpletiboak:

-(e)LA

-(e)NA

Zehargalderak:

-(e)N

-Ø

Baldintzazkoak:

jokatuak
BA-

jokatugabeak
...AZKERO

Erlatibozkoak:

jokatuak
-(e)N + izena
-(e)N + deklinabide atzikia
ZEIN / ZEINTZU... -(e)N
ZEIN / ZEINTZU... - Ø
NON... -(e)N
ZELANGOAK... -(e)N
NO(REN)GANA... -Ø
NORI... -(e)N

Moduzkoak:

jokatuak
-(e)LA
-(e)N LEGEZ
-(e)N MODUAN
-(e)LA MEDIO
ZELAN... -(e)N
ZELAN... Ø

jokatugabeak
-TA
-(r)IK

Kontzesiboak:

jokatuak
BA- ...ERE

jokatugabeak
...ARREN

Kontsekutiboak:

HAIN... ...(ZEIN)

Denborazkoak:

jokatuak
-(e)NEAN
-(e)N GUZTIAN
-(r)IK HONA(KOA)
-(e)N ESKERO

jokatugabeak
...ARTEAN
BAINO... LEHEN(AGO)
...AZKERO / ...EZKERO
-(T)ZAITARTEAN

-(r)N(EKO) HAIN LASTER	-ITARTEAN
-(e)N ARTEINO	-TORDUAN
-(e)N ARTE(AN)	
-(r)IK ETA ARTEAN	

Kausalak:

jokatuak		jokatugabeak
-(e)LAKO		-T(Z)EAGA(I)TIK /
-(e)LA MEDIO		-ITEAGA(I)TIK
ZERGA(I)TIK... -(e)N		-T(Z)EARREN / -TARREN
ZERGA(I)TIK... -Ø		-AGA(I)TIK
ZERGA(I)TIK... (E)ZE... -Ø		

Helburuzkoak:

jokatuak		jokatugabeak
SUBJUNTIBOA		-T(Z)EKO
SUBJUNTIBOA + -(e)N(T)ZAT		-ITEKO
		-(T)ZAITEKO
		-TAKO
		-T(Z)EARREN
		-TARREN

SARRERA

Lantxo hau egiteko Laudioko euskaraz idatzita omen dauden zenbait testutan oinarritu naiz. Testuok **XIX.** mendekoak ditugu. Ondoren, sarrerakarrean, berauei buruzko zenbait datu emango dut aditzera.

0.1.- 1828ko DOTRINA

Honakoa, landutakoen artean testurik ezagunena dugu. Aita Gaspar Asteteren dotrinaren itzulpen osoa dugu, “cerbaist gueiyagoturik” bertan dinoen bezala. Dotrina honek zenbait argitaraldi izan zuen 1828 eta 1915 urteen artean. Honako hauek dira neuk eskuratu ditudan dotrina honen aleen oinarritzko datuak:

urtea	argitaraldia	argitaletxea	herria
1828	ez du aipatzen	Miserikordiako etxea	Bilbo
1877	azalean 3.a dela dino; barruan, aldiz, 5.a	Delmas	Bilbo
1891	4.a	Delmas	Bilbo
1895	ez du aipatzen	Elosu	Durango
1909	6.a	Emeterio Verdes	Bilbo
1914	ez du aipatzen	E. Lopez	Tolosa
1915	ez du aipatzen	Elosu	Durango

Argitaraldi guzti hauen artean neuk erabilitakoa, Azkue Bibliotekan dagoen le-

henengo argitarapenaren alea da.

Dotrina 105 orrialdek osotzen du, azkenengo bostetan mezatan aritzeko latinezko testua dugularik.

Lehenengo orrialdeko datuen arabera, dotrina hau 1828 urtean argitaratu zen Bilboko “Misericordiyaco etsian; Felipe Morales-en Moldateguiyan”. Laudioko abadeen aginduz egin zen dotrina hau eta egitera bultzatu zituen, dotrina irakastea izan omen zen. Garai hartan, Laudion **XVIII.** mendearen bukaeran izandako auzi luze baten ondorioz, elizkizun guztiak euskaraz egiteko beharra zuten. Berau posible izateko, dotrina bera euskaraz irakasteko beharra ikusiko zuten eta ondorioz dotrina euskaratzeko aginduko zuten.

Neuk ditudan datuen arabera dotrina hau ez da bakarrik erabilia izan Laudion. Orain dela gutxi arte Laudio ondoko Orozko herrian dotrina hau erabiltzen zen. Orozkoko Zaltoa auzoko abade zahar baten paperen artean, bere lobak 1983 urtean dotrina honen laugarren argitarapenaren ale bat aurkitu zuen. Ale honen faksimil modukoa 1983an, *Apuntes Historicos. Euskara Aiarako eskualdean* liburuan, argitaratu zuten ¹.

Bestalde, Luis Villasantek bere *Historia de la Literatura vasca* liburuan ² honakoa aipatzen digu:

“...Por aquellas fechas, solamente en la provincia de Vizcaya había hasta cinco catecismos vascos en uso, según las distintas zonas o comarcas: en la zona de Marquina estaba vigente el de Moguel; en la de Durango, el de Arzadun; en Orozco, el de Llodio; en la zona de Guernica se empleaba el de la Vicaría de Busturia, y la de Arratia tenía también el suyo. ...”

Bestalde, azalean agertzen diren datuen arabera dotrina hau Laudioko abadeen aginduz egin bazen ere, ez dakigu nor izan zen euskaratzailea. Zenbaitek, lehenengo orriaren irakurketa okerra eginez Gabriel Mendez de Luarcak euskaratu zuela aipatu du. Beste zenbaiten arabera, aldiz, Bizkaian zehar misiotan ibili ziren Añibarrok zein Juan Mateo Zabalak jaso ahal izan zuten itzultzeko enkargua. Baina orain arte ezin izan da argi eta garbi frogatu nork izan zuen euskaratzeko ardura.

0.2.- 1858ko DOTRINA

Kronologiaren araberako hurrengo testua, beste dotrina bat dugu. Aurrekoa baino hogeita hamar urte beranduago argitaratu zen. Argitarapenaren erantzulea Luis Luciano Bonaparte Printzea izan zen. Lan hau E. Billing jaunari agindu zion eta berrogeita hamar ale atera zuten.

Aurrekoarekin erkatuz, honakoa ez dela Asteteren dotrina osoaren itzulpena esan behar dugu; atal bakar batena baizik. 1828koa dotrina irakasteko egin omen zutela aipatu dut; baina oraingoaren helburua ez zen didaktikoa izan, linguistikoa baizik.

Orain arte liburu edo dotrina batez aritu banaiz ere, egia esan testu bi daukagu.

Alde batetik eskuskribua dugu ³. Eskuskribuaren titulua *Cristiñau doctrinari* *en lau partiac* da. Agiri hau alde bietatik idatzitako hamabost orrik osotzen du. Lehenengoaren goiko aldean, beste letra ezberdin batez idatzita, **Llodio** izena dugu, bertoko dotrina dela adierazteko. Hogeita hamargarren orrialdean, bestelako testurik gabe **Llodio** izena dugu, berriz. Oso kaligrafia zaindua erabili zuen egileak eta ez dago ia oztoporik ezta zalantzarik ere irakurketaren orduan.

Beste alde batetik, Bonaparteren aginduz Londresen argitaratutakoa dugu. Londresekoa *Doctrina cristiana en el vascuence de Llodio, provincia de Alava* titulupean argitaratu zuten. Bigarren orrialdean, testuaren hasiera gisa <**Cristiñeu doctrinien lau partiac**> dugu idatzita. Ikus daitekeenez, eskuskribuan izenburu gisa agertzen den testu bera dugu, baina zenbait ñabardurarekin. Liburuxka hau, guztiok dugu eskuragarri gaur egun, Euskaltzaindiak 1991n argitaratu zuen *Opera omnia vasconice* obran. Argitarapen hau larogeita bi orrialdek osotzen du. Lehenengo orrialdean Bonaparteren zenbait azalpen fonetiko dugu. Azkenengoan E. Billing jaunaren egiaztapena eta argitaraldiaren azalpenak ditugu. Beraz, testuak larogei orri betetzen du.

Dirudienez, Bonaparte lehen aipaturiko eskuskribuan oinarriru zen Londreseko argitarapena egiteko baina bada zenbait ezberdintasun testu bien artean. Ezberdintasun hauek Bonaparteren zuzenketa eta moldaketan ondorio dira.

Testu bi hauen artean zenbait ezberdintasun badagoela aipatu badut ere, guzti guztiak maila “fonetikokoak” dira eta maila sintaktikoan ez luke ezer berririk aporteratuko dotrina bion erkaketa egiteak. Hau dela eta, nire lantxo txiki honetarako lehenengo baina ez dut kontutan izan; hau da, Bizkaiko Diputazioaren Liburutegian da goen eskuskribua.

Itzulpenaren egileari dagokionez, oraingoan ere, ezezaguna dela esan behar dugu. Carlos Gonzalez Etxegaraireren eritzia irakurrita ⁴, erabat segurua da Uriatek ez zuela dotrina hau egin. Baina geroxeago ikus daitekeenez, testu hau eta 1828koa nahasten ditu.

Dena den, Uriartek Bonaparterekin izandako korrespondentzia ikusten badugu dotrina honen itzultzailea beste bat izan dela egiazta dezakegu. 1857ko abenduaren 5etik, 1858ko apirilaren 3ra arteko gutunetan, dotrina honi buruzko honako aipuak egin zituen Uriartek ⁵:

1857ko abenduaren 5a:

“...Adjuntos van las traducciones del “Benedicite” guipuzcoanas sin eufonías y con ellas. Hoy mismo remito a Bayona “El Esculiburu”, “Errosariyo” “Catechima Oloroco” y “Vici bedi Jesus”. El de Llodio nada me ha remitido...”

1858ko martxoaren 11a:

“...He escrito a Llodio por el Catecismo y he comunicado a un cura joven, amigo mio, de Arrancudiaga, en cuya casa estuvimos, a fin de que practique las diligencias por el Catecismo: si este no consigue el objeto, yo pasaré a Llodio, concluida la Misión de Yurre....”

1858ko apirilaren 3a:

“...P. D. Adjunta va la copia del Catecismo de Llodio...”

0.3.- RUTH-EN LIBURUA

Bibliako liburu honen itzulpena 1872 urtekoa da. Testu honen berri, Endrike Knörr-ek *Symbolae L. Mitxelena* liburuan idatzitako “Otro texto de Llodio. El libro de Ruth por Ignacio Galindez. 1872.” artikulua bidez izan nuen. Bertan, zenbait iruzkinekin batera liburuxka honen transkribapena atera zuen. Endrike Knörr-ek emandako datuen arabera, jatorrizko testua Pariseko Liburutegi Nazionalean dago gorderik ⁶.

Eskuskribu honen izenburu gisa honako testua agertzen da:

“Escritura Santaco Ruth-en liburu latineti Llodio balleraco euskerara D.

Ignacio Galindez abade jaunac biurtua”

Ageri denez, izenburu honetan Laudio agertu barik Llodio dugu. Honela agertzeko arrazoi bi izan daiteke. Alde batetik, Endrike Knörr-ek dioskuna kontutan harturik, ezagunagoa zen espainierazko izena euskarazkoa baino hizkuntzalarien inguruan. Hau dela eta erabaki omen zuen Galindezek honela idaztea.

Baina Pariseko eskuskribuaz gain badago testu bereko beste eskuskribu eskuagarriago bat Loiolako artxibategian; Jose Ignacio Aranaren dokumentuen artean, hain zuzen. Loiolako eskuskribu hau ikusirik berehala ohartzen gara izenburuaren kaligrafia ez dela Galindezena. Beraz, baliteke izenburua geroxeago Aranak idatzia izatea eta agian honek ez zuen jakingo herriko euskal izena zein zen, Llodio forma ezarritz.

Azken agiri honen berri Amurrioko Francisco Javier Cuadrak emateaz gain, eskuratu ere egin zidan. Loiolako agiri hau hamabi orrik osatzen du. Orriok zutoin bitan banaturik daude. Eskuinaldekoan euskarazko testua dago eta ezkerraldekoa hutsik. Lehenengo orrian ipintzen duenaren arabera, ezkerraldeko zutoin hau gaztelarazko bertsioa idazteko erreserbatutako dago; baina agiri honetan ez da gaztelarazko bertsiorik agertzen.

Orriotan Ruth-en liburuaren itzulpena agertzen da eta jatorrizko testua zuzenketa eta oharrez josita dago. Oharrak ezartzeko moduak oso zailtzen du agiriaren irakurketa eta batzutan zalantza nabariak daude jatorrizko testua nolako zen erabakitzean. Zuzenketen ondoko testua, Endrike Knörr-ek transkribatutakoa dugu; hau da, Pariseko Liburutegian gorderik dagoen testua.

Aurrekoetan ez bezala, ezaguna da itzultzailea. Testu honen egilea Ignacio Galindez izan zen eta Jose Ignacio Aranaren laguntza jaso zuen. Ignacio Galindez, Laudion jaio zen 1839ko uztailaren 30.an. Itzulpena egin zuen garaian Ugaon zegoen apaiz; bertan egon baitzen 1867tik 1872ko urriaren 20 eguna arte. Galindez 1918ko abuztuaren 5.ean hil zen.

Dirudienez, Ruth-en liburuaren itzulpena egin ondoren, Ignacio Galindezek

Jose Ignacio Aranari bidali zion zuzen zezan. Geroxeago garbira pasatu eta gaztele-razko testua ezarri eta gero Antoine Abbadieri bidali zion, berak Galindezen eskus-
kribua gordez.

Honek azalduko liguke, Parisen gorderik dagoen agiriak data bi izatea. Ziur as-
ki Galindezek 1872 urtean egingo zuen itzulpena eta Aranak 1873an bidali zion Ab-
badieri.

Loiolako dokumentuak badu beste berezitasun bat. Lehenengo kapitulua eta bi-
garrenaren hasierak pertsona batek, eta bigarren, hirugarren eta laugarrenak beste
batek eginda dirudite. Ondorioz, bigarren kapituluaren hasiera errepikatu egiten da
laugarren eta bostgarren orrietan.

Berriz ere, nire lantxo honetarako testu biak kontutan izateak aportazio berririk
emango ez lukeenez, jatorrizko testua izan dut kontutan eta Parisekoa zenbait errefer-
rentzia zehatz emateko baino ez dut aipatzen.

¹ **Batzuen artean: Apuntes históricos. Euskara Aiarako eskualdean.** Laudio - 1983.

² **VILLASANTE, Luis: Historia de la literatura vasca.** Arantzazu argitaletxea. Burgos - 1979.

³ Eskuskribua Bizkaiko Diputazioaren Liburutegian dugu eskuragarri, Bonaparteren fondoan Bv - 39 sig-
naturarekin.

⁴ **GONZALEZ ETXEGARAI, C.:** "Catálogo de los manuscritos reunidos por el Príncipe Luis Luciano Bo-
naparte que se hallan en el País Vasco" in **Euskera - XXIX.** Euskaltzaindia, Bilbo - 1984.

⁵ **RUIZ de LARRINAGA, J.:** "Cartas de P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte" in **BRSBAP.**
1954.

⁶ Pariseko Liburutegi Nazionala. Manuscrits celtiques et basques, n° 151.

PERPAUS BAKUNAK

Fr. Luis Villasantek *Sintaxis de la oración simple*¹ liburuan, ikuspuntuaren arabera perpausen zenbait klasifikapen ezberdin egin daitekeela dinosku. Honela, bada, berak klasifikapen bi eskaintzen digu. Lehenengoa **hiztunaren jarrerari** begira eta bigarrena **izaera gramatikalari** begira:

Hiztunaren jarrera

Adierazpenekoak
Harridurakoak
Zalantzakorrak
Galde perpausak
Desirazio perpausak
Exhortatiboak, e.a.

Izaera gramatikala

Kopulatiboak
Iragangaitzak
Iragankorrak
Pasiboak
Bihurkariak
Elkarkariak
Inpertsionalak, e.a.

Lantxo honen helburua, ez da perpaus mota guzti hauen ikerketa eta analisi exhaustiboa egitea. Ezinezkoa litzateke, alde batetik izan dudak korpua mugatu samarra baita honetarako. Eta beste batetik, testutan oinarrituta ezinezkoa baita perpaus moten osakeran oinarritzekoak diren intonazioa eta azentua analizatzea. Nire korpua ez da perpaus mota ezberdinak jasotzeko inkesta jakin batean oinarritu. Beraz, zelako baliabideez baliatu ziren gure itzultzaileek perpaus mota desberdinak egiteko ikusten saiatuko naiz. Dena den, nolabaiteko ordenari jarraitzeko kontutan izango dut Villasanteren ekarpena.

1.1.- Perpausaren ordena:

Ez dut gehiegi luzatu nahi puntu honen arlo teorikoaz, baina sarrera gisa interesgarria erizten diot zenbait kontzetu laburbilduta emateari.

Euskal perpausen ordena **SOA** dela esan ohi da (Subjektua, Objektua, Aditza). Era berean, eta gramatikaren ikuspuntutik at, edozeini galdetuko begenio ea non jarzten den aditza euskaraz, berehala erantzungo liguke perpausaren atzean ipintzen dela.

Baina printzipioz erabat onartuta dagoen ordena hori, askotan apurtzen dela ikus dezakegu. Ondorioz, matizazio txiki bat egin behar dugu. Aipaturiko ordena, nolabait esateko, **perpaus neutroari** dagokio.

Ondorioz, euskal perpausaren ordena azaltzeko ez da nahikoa lehen azaldutako eskema. Beste kontzeptu bi izan behar dugu kontutan: **mintzagaia** eta **galdegaia**. hain zuzen. **Galdegaia**, perpausaren bidez aditzera eman nahi dugun *informazio berria* litzateke eta **mintzagaia**, aldiz, dagoeneko *jakina den informazioa* litzateke. Honela, bada, **galdegaia** euskaraz aditzerekiko kokapenaren bidez azpimarratzen da. *Informazio berria* edo **galdegaia** aditzaren aurre aurrean kokatzen da.

Hala ere, praxiara pasatuta, azaldutako azken erregela hau askotan apurtzen dela ikus dezakegu. Aztergai ditudan testuetan ere erregela honen apurketa askotan gertatzen dela ematen du.

Beste alde batetik, **galdegaia** aditza bera denean, arazoa korapilatzen zaigu. Kasu honetan aditz perifrastikoa perpausaren hasieran ere ager dakiguke aditzaren baietza bera galdegai dugunean:

Etorri da izekoa.

Ekarri dugu gure osaba.

Baina aditz sintetikoekin, ezinezkoa zaigu jokabide hau:

* **Dator** izekoa.

* **Dakargu** gure osaba.

Kasu hauetan, halabeharrez, **ba-** aurritzia erantsi behar omen diogu aditzari:

Badator izekoa.

Badakargu gure osaba.

Has gaitezen, beraz, aztergai ditugun testuak ikertzen. Hiru testuotatik bi, dotrinak ditugu eta hauetan atalik garantzitsuena galdera-erantzunek osatzen dute (1858koan atal hau baino ez daukagu). Mota honetako testuetan, azaldutako teoria edo erregelaren arabeko ordena topatzea errezagoa litzatekeela pentsa genezake; galde-hitzak zuzenean adierazten baitigu zeinek izan behar duen perpausaren galdegaia. Baina ez da honela gertatzen.

Alde batetik, testuari nolabaiteko arintasuna edo, emateko ahozko hizkeran askotan gertatzen den bezala aditza eliditu egin da (baita zenbaitetan mintzagaia ere). Honelakoetan, aditza ordenari dagokionean muina dugunez, gaitz suertatzen zaigu zein den perpausaren ordena erabakitzea.

1828ko dotrina

- I.** Cein da Cristiñauaren señalía ?
E. Curtze Santua Ø.
 11. orr.
- I.** Iru personetari cein eguin zan guizon ?
E. Bigarrena Ø , cein dan semia.
 19. orr.
- I.** Eta bere gorputza celan gueratu zan ?
E. Baturic Ø Jangoicotasuna beragaz.
 25. orr.
- I.** Cein da irugarrena ?
E. Domecac eta Jayac gordetia Ø.
 41. orr.
- I.** Noc austen dau mandamentu au ?
E. Errazoe andi bagaric juzgu deunguia eguiten dabenac, creitua quendu, secretoa aguertu edo guzurra esaten dabenac Ø.
 46/47. orr.

1858ko dotrina

- I.** Sein de Christiñeuen señalía ?
E. Curce santia Ø Jaune.
 1. orr.
- I.** Iru personetari sein eguinsen guizon ?
E. Semia Ø jaune.
 7. orr.
- I.** Selan yatsisen ?
E. Arimiagas Jangoicotasunera uniduric Ø.
 9. orr.
- I.** Sein de irugarrena ?
E. Domecac eta jayec gordetia Ø.
 17. orr.
- I.** Noc austendau mandamentu au ?
E. Errasoe andibaga juzgu deunguia eiten dabenac, creitue quendu, secretoa aguer aguertu, edo guzurre esaten dabenac Ø.
 18. orr.

Aurrekoetan, lehenago ikusitakoa kontutan hartuz eta galderari so eginez, aditzek Ø-z markaturiko lekuetan agertu beharko lukete. Baina teorian espero geneza-keen joaera hau ez zaigu honela agertzen. Gure testu biotan, aditza agertzen den esaldietan, oso maiz topa ditzakegu espero genitzakeenen aurkako emaitzak. Berdin gertatzen zaigu galdera-erantzunen atalean, nola kontakizunetan (eta otoitzetan) ere. Honetaz gain, geroagoko adibideetan ikusi ahal izango dugunez, dotrinon egileek lasai aski kokatzen zuten aditza perpauas hasieran, lehen aipatu dudan bezala, guri trekets gertatzen bazaigu ere.

Beste alde batetik, Ruth-en liburuan (1872) ez dugu dotrinetan bezala galdera-erantzunez osotutako atal berezirik. Dena den, badira honelako adibideak ere testu honetan zehar. Eta hauetan ere, perpausen ordena nahiko traketsa suertatzen zaigu. Zenbait adibide ikus dezagun:

1828ko dotrina	1858ko dotrina	Ruth-en liburua (1872)
Galdera-erantzunak	Galdera-erantzunak	Galdera-erantzunak
I. Trinidad guztiz Santua nor da ? E. Da Jangoicoa bera, Aitia, Semia eta Espiritu Santua, iru persona distinta, eta Jangoico eguiyazco bacar bat. 17. orr.	I. Santissime Trinitadea nor da ? E. Da Jaungoicoa vera Aitia, Semia, eta Spiritu Santue iru persona distinte, eta Jaungoico eguiescobat. 5. orr.	...¿ Norna da nezcatilla au ? ...Au da a Moabitarra, Moabaco paragetico etorri zan Noemigaz. II - 5/6
I. Ce gauza dira Angueruac ? E. Dira, Ceruan Jangoicoa gocetan dagozan Espiritu zoriyoneco batzuc. 36. orr.	I. Se gause dire Angueruec ? E. Dire espiritu bienaventuredu basuc, seinsuc dagozan Jangoicoa gozetan Ceruen. 15. orr.	...¿ Nor zara ?... Neu naz Ruth ceure esclabia,... III - 9
I. Ce gauza dira Sacramentuac ? E. Dira señale aguiiri batzuc, JESU Cristo gueure Jaunac	I. Se gause dire Sacramentuac ? E. Dire señale aguiiri basuc instituidu edo eguin situsenac	

eguin, ta imini cituzanac, euren
mediyoz emoiteco guri bere
graciya, ta birtutiac.

54. orr.

Jesuchristo gueure Jaunec
emoiteco euren medios bere
gracia eta virtuteac.

20. orr.

Kontakizunak

Cristiñau fiyel guztiyac
dagoz obligaduric deboziño
artutera...

3. orr.

..., Jauna da zugaz,...

5. orr.

Jangoicoaren Legueco Man-
damentuac dira amar:...

7. orr.

Elessa Ama Santiaren
mandamentuac dira bost.

47. orr.

Elessa Ama Santiaren Sacra-
mentuac dira zazpi: lelengo
bostac dira biar biarrac izatez edo
borondatez, ceintzuc baga ecin
salbau leiteque guizona echiten
badituz despreeoz: beste biyac
dira borondatezcoac.

54. orr.

Pecatu capitalac dira zazpi.

77. orr.

Zazpi pecatu oneen contra
dagoz zazpi virtute.

79. orr.

Kontakizunak

Elexa ama santien manda-
mentuac dire bost.

18. orr.

Misericordisco obrac dire
amalau: saspí espiritualac eta
veste saspí corporalac.

Espiritualac dire oneic.

19. orr.

Corporalac dire oneic.

19. orr.

Elexaco Sacramentu santuac
dire saspí, lelengo bostac dire
necesidadecoac iseites edo
vorondates, seinsuc baga esin
salbauliteque guizona echiten
baditus menosprecios; beste
biec dire borondatescoac.

20. orr.

Kontakizunak

..., eta doa Moaldera, Noemi
bere emaste, eta bere seme
biecas,...

I - 0

...Elimelech bere senarrac
eucan senide bat guizon
poderosoa...

II - 1

...jazo zan a soloa zala Booz
erechon guizon batena...

II - 3

...Au Booz au, ... da
gueure zenidia...

III - 2

...dago beste bat neu baño
urcoago dana.

III - 12

...dauco beragandic Obed
derechon seme bat.

IV - 0

...arturic Noemic semia imini
eban bere altzuan eta eguiten
eban beragaz aña eta cenziñaren
oficioa.

IV - 16

Ezinezkoa dugu oraingoan, aukeraturiko perpaus guztien analisisa egitea, luze gertatuko bailitzaiguke. Baina kontestu bakoitzeko bat aukeratuko dut zenbait iruzkin egiteko.

Galdera-erantzunen atalean, honakoa aukeratuko dugu:

I. Se gause dire Angueruec ?.

E. Dire espíritu bienaventuredu basuc, seinsuc dagosan Jangoicoa gozetan Ceruen.

Argi ikus daitekeenez, galderari zuzenean erantzuten dion atala, hau da perpausaren informazio berria <espíritu bienaventuredu basuc> sintagma dugu, "ZER" galderari dagokion erantzun zuzena baita. Honako honetan, galdegaiaren teoriari muzin eginez, egileak informazio berria aditzaren aurrean kokatu ordez, aditzaren ondoan kokatu du. Lehenago azaldutakoaren arabera, beraz, perpaus hau honela izan behar izango genuke:

I. Se gause dire Angueruec ?.

E. Espíritu bienaventuredu basuc dire, seinsuc dagosan Jangoicoa gozetan Ceruen.

Beste alde batetik, guri bitxi eta okerra iruditu arren, testuon egileek ez omen dute inongo arazorik aditz trinko jokatua perpausaren hasieran kokatzeko:

Da Jaungoicoa vera...

Dire espiritu bienaventuredu basuc,...

Dire señaie aguiari basuc...

Kontakizun ataletan ez daukagu lagungarri gerta dakigun galdera zuzenik. hala ere zenbait perpausen egitura ikusita, analizatzen ari garen arauak kale egiten du. Zail gertatzen zait ondoko perpausetan, kokapenaren arabera galdegai ematen dutenak (beltzez azpimarratuta), benetako galdegaiak izatea:

Elexa ama santien mandamentuac dire bost.

Misericordisco obrac dire amalau:...

Espiritualac dire oneic.

Elexaco Sacramentu santuac dire saspi,...

Perpauson esanahia eta zentzua ikusita, nire ustez berauon galdegaiak honakoak dira:

Elexa ama santien mandamentuac dire **bost**.

Misericordisco obrac dire **amalau**:...

Espiritualac dire **oneic**.

Elexaco Sacramentu santuac dire **saspi**,...

Berriz ere, azaldutako teoriaren arabera, atalok (<**bost**>, <**amalau**>, <**oneic**> eta <**saspi**>) aditzaren aurrean eduki behar izango genituzke.

Zein izan zitekeen gure egileak honela jokatzera bultzatu zituen arrazoa?

Hasiera batean eta ikerketetan gehiagi sakondu gabe, gure egileek espainieraren egitura sintaktikoaren kalko hutsa egin zutela esango genuke. Hizkuntza bien testuak elkarren ondoan ikusiko bagenitu, honela dela pentsa genezake. Ikus dezagun: Elexa ama santien mandamentuac dire bost.

Los Mandamientos de la madre Iglesia son cinco.

1 2 3

Las obras de misericordia son atorce: siete

1 2 3 4

espirituales y otras siete corporales.

4

Las espirituales son estas.

1 2 3

Las corporales son estas.

1 2 3

1 2 3

Misericordisco obrac dire amalau: saspi

1 2 3 4

espiritualac eta veste saspi corporalac.

4

Espiritualac dire oneic.

1 2 3

Corporalac dire oneic.

1 2 3

Baina honakoa oso azalpen sinplista dela iruditzen zait. Ikus dezagun ordena honi buruz, lehenago aipatutako liburuan L. Villasantek ¹ dioskuna, Mitxelenaren lan batean oinarrituta:

“Esta manera de construir la frase vasca es la normal, la regular, la aséptica, por así decir. Pero no es una ley rígida o inexorable. Padece numerosas excepciones, como veremos.

Por de pronto, aun dentro de la literatura oral, hay géneros tales como la narración, el cuento, los refranes etc., que no se ajustan, al menos enteramente, a la precitada regla del euskara coloquial.

Recientemente aún L. Michelena ha hecho notar que dentro del lenguaje vasco hablado hay que distinguir como dos tipos o clases del mismo: 1) *Hizkeria suntsikorra*, 2) *Hizkeria iraunkorra*⁴. O sea, lenguaje fugaz y lenguaje duradero. La lengua coloquial es fugaz; pero dentro de la misma lengua hablada existen ciertos géneros en que se aspira a que el lenguaje alcance, por el arte especial con que se construye etc., un cierto carácter de permanencia o perennidad. Para ello se recurre a una ordenación un tanto artificiosa, que se sale de la normal, facilita la retentiva y transmisión.

⁴ «Euskal hizkeria eta euskal neurkeria», *Euskera* (1977), 733.”

Honako honek zalantzan jartzen du lehenagoko ikuskera sinplista. Kontutan izan behar dugu, lantzen ari garen testuok buruz ikasteko eginak direna. Beraz, bali-teke espainieraren egituraren kalko hutsa izan ordez, buruz ikasteko helburuaz antolaturiko testuak izatea; hau da, Mitxelenak izendatzen zuen *hizkeria iraunkor* horren antolakuntza berezia izatea.

Dena den, ez dut puntu honetan sakonduko, ez baita berau lan honen helburua. Bego, beraz, esandakoa gai honi buruz neuk baino gehiago dakien beste batek iker dezan.

¹ VILLASANTE, Fr. Luis: *Sintaxis de la oración simple*. Arantzazu argitaletxea. Burgos - 1980.

1.2.- Galde perpausak:

Galderetan, intonazioa adierazten omen duen galdera ikurraz aparte ez dugu orokorrean bestelako markarik. Salbuespen bakarrak 1828ko dotrinan ditugu. Honako honetan, birritan,zalantza (egiazkoa zein erretorikazkoa) adierazteko edo azpimarrazteko erabili ohi den **ete** partikula agertzen zaigu.

Dena den, adibide hauetan ez omen ditu egileak zalantza adierazteko erabiltzen. Honen ordez, **BAI/EZ** erantzuteko partikularen parekoa dirudi. Hau da, erdialdeko hizkeretan erabili ohi den **al** partikularen antzeko funtzioa betetzen duela ematen du.

1828ko dotrina

I. Ostiya consagrada erdibituten, edo apurtuten bada, erdibituten **ete** da Cristoren gorputza ?.

E. **Ez**, Jauna, bada ain osoric...

73. orr.

I. Eta uso-errazoezcora eldu cirianac gaisho peligruzcoagaz dagozarian, **ete** dauqueen Sacramentu Santuau artzaiteco obligaciñoric ?.

E. **Bai**, Jauna, eta pecatu mortala eguiten daudee...

76. orr.

Bigarren adibide honek aipu berezia merezi du. Aurreko puntuan aipatu dudan bezala,ezin koka dezakegu aditz sintetikoa perpaus hasieran. Honelakoetan **ba-** aurrizkia ezarri behar dugu. **ete** partikulak, ez dauka behar beste indarririk edo, aurrizki hau ordezteko eta honelakoetan **ba-** aurrizkia dagokigun partikula honen aurrean kokatu behar dugu:

Ba ete daukagu...

Ikusi ahal izan dugunez, gure dotrina honen egileak ez dio arau honi jarraitu eta guri berezi samar gertatzen bazaigu ere, **ba-** aurrizkirik gabekoa dugu perpaus hau.

1.3.- Aginte perpausak:

Aginte perpausak analizatzeko, lehenik eta behin aditzen osakerari egin behar diogu so; hau da, aditzak era trinkoan edota era perifrastikoan jokatuta dauden.

Adizki trinkoz osoturiko perpausak ez dira asko gure testuotan, 1858ko dotri-
nan esate baterako ez da bat ere agertzen. Honakoak dira aurki ditzakegun perpaus-
sak:

1828ko dotrina	Ruth-en liburua (1872)
...: betor gugana zure erreinua,...	...: zuaz , neure alabia.
4. orr.	II - 2
... eracuscuzu JESUS, ceure sabeleco frutu bedeincatua.	... edaizu urati neure criaduac edaten dabena.
6. orr.	II - 9
E. Betor gugana zure erreinua.	
32. orr.	
Eguizuz , bada, zuc bere aleguin guztiyac topetaco,...	
89. orr.	

Honelakoetan, beti topatu dugu jokarea bera. Perpaus hauetan, adizkia hasiera
hasieran kokatua dugu. Ez da inoiz tartean edota bukaeran kokatzen. Honela joka-
tzean hitzunik edo, kasu honetan bezala, idazleak aginte bera indartzen du; berau az-
pimarratuta edo, gertatzen zaigularik.

Adizki perifrastikoz osoturiko perpausetan, aldiz, normalean aurrekoetan beza-
la jokatzen bada ere, zenbait kasutan aditza perpausaren amaieran kokatuta izango
dugu:

1828ko dotrina	1858ko dotrina	Ruth-en liburua (1872)
...: santificadu bedi zure ucena:...	...; esan eguidesu orain:...	...; juan satese seuben ameen echetara:...
4. orr.	3. orr.	I - 8
..., Erregutu eguizu gu pe- catariyoc gaitic,...	... santifiquedu bidi seure usena.	..., biurtu saguides atzera neure alabac;...
5. orr.	12. orr.	I - 11
E. Eguin bedi zure boron- datia...	E. Eguin bidi seure vorondatia...	... battzandu zaitez neure otzainacaz, ...
32. orr.	13. orr.	II - 8
E. Parcatu eguiguzuz gueu- re zorrac;...	... euqui eguiosu debosiño andie...	... busti eguizu ceure copau- ba biñagrian:...
33. orr.	15. orr.	II - 14
M.Esan eguizuz Elessa Ama Santiaren mandamentuac.	...: esan eguisus elexaco Sacramentuac.	Descansau eguizu gau onetan:...
47. orr.	20. orr.	III - 13
... gorde naguizu gaurco neure pausu, berba, ta gauza guztiyetan,...		Usau eguisu zuc neure dere- choa,...
95. orr.		IV - 6
R. Eguin bidi nigan zuc esan dozuna.		Kendu eguizu zapatia.
99. orr.		IV - 8

Adibide guzti hauek, nolabait, lehenago ikusi ditugun adibideen parean ditugu. Baina esan bezala, adizki perifrastikoz osoturiko aginte perpausen artean, batzutan (gutxiagotan bada ere) adizkia perpausaren hasieran kokatu beharrean gure autoreek amaieran kokatu dute:

1828ko dotrina	1858ko dotrina	Ruth-en liburua (1872)
...gueure † areriyotari libradu gaguizuz...	E. Curce santiaren seña liala gaitic gueure areriyotari libredu gaguisus...	...eguitier-eguiten deuden lecuan seguidu eguizuz.
4. orr.		II - 9
...neure eriyotzaco ordu estu- an lagundu eguidazu, ...	2. orr.	...bedeincatia izan zaitez...
96. orr.		III - 10
..., eta yan biar dogun guzti- ya zuc bedeincatu eguizu,ezcu biecaz ondo oratu eguiozu.
98. orr.		III - 15
...arima fiyel guztiyac eroan eguizuz...		
99. orr.		

Aurrera jarraitu baino lehen, bada perpaus hauetan aipagarria den beste gauza bat. Aurreko adibideetan ikusi ahal izan dugun bezala, Laudioko testu hauetan agertzen diren agintezko aditzak bat datoz Mendebaldeko ekanduarrekin, eraketari dago-kionez. Hau da; Ekialdeko ekanduan ez bezala, Mendebaldekoan agintezko aditzak aspektodun partzipioen bidez eratzen dira. Dena den, badugu 1828ko dotrinan honen salbuespena ematen duen adibidea:

1828ko dotrina

...; **lagun eguidazu**, bada, gaurco ta neure bici guztico obra, berba, ta gauza guztiyetan,...

96. orr.

Honen jarraian, aditz bera dugu beste adibide batean, baina oraingoan aspektoduna:

1828ko dotrina

...; eta neure eriyotzaco ordu estuan **lagundu eguidazu,**...

96. orr.

Hala ere, zalantzarik da oso lehenengo adibide hau eta ezin esan dezakegu ziurtasun osoz aspekturik gabeko forma denik, ez baitakigu **lagundu** aditza ala **lagun egin (izena + aditza)** perifrasi multzoa jokatzen duen. Mendebaldeko ekanduari so eginez, ia ziurtzat eman dezakegu bigarren aukera hau dela.

Adizki perifrastikoz egindako perpausekin jarraituz, badugu aipatzeko beste zera bat. Ezezko perpausetan, ordenari dagokionez, joera bi soma dezakegu. Alde batetik, indikatiboko adizki perifrastikoekin egiten den transformazio bera edo, dau-

kagu. Hau da, ezetzaren ondoan aditz laguntzailea dugu eta ondoren aditz partizipioa. Nolabait, ondoko eskemari jarraitzen diola:

EZ + laguntzailea + Aditz partizipioa

Ikus dezagun:

1828ko dotrina	Ruth-en liburua (1872)
... ez naguizu desanparau neure eriyotzaco orduan.	... Es neidesube deitu Noemi: (au da, Noemi , galanta) deitu neisube Mara,...
97. orr.	I - 20
	..., ez zatez juan beste solora garagar buruac topetan, ez zaitetz apartau lecu onetic;...
	II - 8
	..., ez evezue galaso ;...
	II - 15
	Ez zaitetz ba bildurtu,...
	III - 11

Beste batzutan, aldiz, ez da ordenari dagokion transformaziorik gertatzen eta ezetza aditz partizipioa eta laguntzailearen artean kokaturik daukagu:

Aditz partizipioa + EZ + laguntzailea

1828ko dotrina	1858ko dotrina
... ichi ez eiguzu tentasiñoan yausten:...	E. Echi eseguisu tentasiñoan yausten.
4/5. orr.	13. orr.

Ikus dezakegunez, 1828ko dotrinan joera biak soma ditzakegu. 1858koan bigarren aukera honetakoa baino ez dugu. Eta 1872ko Ruth-en liburuan, aldiz, lehenengo ordenako adibideak baino ezin topa ditzakegu.

1.4.- Perpaus pasiboak:

Euskarak perpaus pasiboak osatzeko duen baliabidea, zera dugu: **nor-nork** saileko aditza duten perpausak, **nor** saileko aditz laguntzaileaz 3. pertsonen jokatzeara. Bestela esanda, eta honetan datza pasibotasuna, aditzaren arabera, berez subjektu agente edo ergatiboa izan behar izango genukeen perpausetan, berau kentzea eta ergatiborik gabeko perpausak osatzea. Subjektua edo ekintzaren egilea era zuzenean zein den ez azaltzean, nolabaiteko inperersonaletasunaz jantzita edo, suertatzen zaigu perpausa.

Ikertzen ari garen testuotan, ez zaizkigu mota honetako perpausik falta 1828 eta 1858ko dotrinetan. 1872ko Ruth-en liburuan ez dut adibiderik aurkitu. Besterik gabe, berauen zenbait adibide ikusiko dugu ondoren:

1828ko dotrina

E. Batuten ciriala barrero bere gorputz, ta arima gloriyaz betia, ostera iños il ezeiteco.

25. orr.

I. Cer aguiduten da mandamentu onetan ?.

45. orr.

E. Quentzaiteco pecatu originala, ta beste, **batiatuten danagan**, aurquituten dan edocein.

56. orr.

I. Celan ondo batiatuten da ?.

58. orr.

E. Batiatu bada-ezpadan, ustelduta urten ezpadau, eztalaco ilic dagoanean señale ciertua mobimenturic ez eguitia: eta **esaten da** alangoan:...

59. orr.

I. Eta celan irabacico dira ?.

68. orr.

E. Arin yausten dalaco berian guizona, eta arin **parcatuten yacalaco**.

I. Ceinbat gauza gaitic parcatuten yaco ?.

69. orr.

I. Ostiya consagrada **erdibituten**, edo **apurtuten bada**, **erdibituten** ete **da** Cristoren gorputza ?.

73. orr.

...: Infernuan gach guztiyac onic bapere bagaric **aurquituten dirian** leguez.

88. orr.

Gaubian, oian sartu baño leenago ur bedeincatua artu, curtze Santiaren eguin, eta guero **esango dirian**.

ORACINOAC.

96. orr.

1858ko dotrina

I. Norsuc besteric **entenditan dire** guresoen usenian ?.

17. orr.

E. Bai jaune jurementu eiten yacalaco Criedoriari eurretan.

17. orr.

I. Ser aguidutenda mandamentu onetan ?.

18. orr.

E. Quensaiteco pecatu originala, eta veste edo-seimbere **aurquituten dana** batiatuiten danagan.

21. orr.

E. Laster yaustendalaco berian guisona, eta laster **parcatuten yacalaco**.

I. Seinbet gause gaitic **parcatuten yaco** ?.

25. orr.

Ecusi dogu ya ser sinistu, eta ser **escatu biardan**; ecusi daigun orain selan daquisun ser **obrau biardan**: esan eguidesu...

26. orr.

Bederatsigarrena, bulerra yoitia gaitic, Jangoicoari parca **escatuiten yacala**.

I. Segaitic diñosu Jangoicoari parca **escatuten yacala** ?.

26. orr.

I. Ostie consagradue **erdibitu** edo **apurtuiten bada**, **erdibituitenda** Jesuchristoen gorputse ?.

28. orr.

I. Eta usu errasoecora eldu asquerocoac gaxo peligruscoagas **aurquituten badire** bauquie obliquesiñoeric erresibitaco Sacramentu santu au ?.

29. orr.

Perpaus pasiboak osatzeko euskarak egiten duen transformazio hau oso emanorra eta indar handikoa da. Hain da honela ezen, geroxeago ikusi ahal izango dugunez, beste perpaus mota batzu berera erakartzen baititu, eta pasiboen analogiaz edo osatzen dira.

1.5.- Perpaus bihurkariak:

“**X-en burua**” sintagma zenbaitetan agertzen zaigu 1828ko dotrinan eta 1858koan behin baino ez da agertzen:

1828ko dotrina

Amar Mandamentu oneec sartuten dira bitan, Jangoicoa amau ta serbitian gauza guztiyac baño gueiyago, ta progimua **gueure burua** leguez. Amen.

8. orr.

E. Bere buruari, edo progimuari eriyotzia, edo beste gach andiren bat deseetan deutsenac, edo gorroto deutsenac; edonorbere il, eridu, edo manatuten dabenac; ordituten danac; osasunian gach andiya eguingo deutseen gauzac yaten dituzanac; **bere burua** il, edo ilteco peligran iminten dabenac;...

43/44. orr.

I. Celan izango dira lurraren yaube ?.

E. Euren buruen yaube izanda.

86. orr.

I. Nortzuc dira baquetsuac ?.

E. Euren buruai, ta besteenai baque ona emon daroyoenac.

87. orr.

..., ametan dot neure Jangoicoa neure biyotz guztiti, eta gauza guztiyac baño gueiyago, dalaco bera guztiz ona, ta amorosoa: eta bere amorearren ametan dot neure progimua **neure burua** leguez. Amen.

93. orr.

1858ko dotrina

E. Jangoicoa ametia gause gustien ganian eta projimue **gueure burua** legues, portaduric eurescas selan gura gueunquian portadu ditesan gueugues.

21. orr.

Aipatutako izen sintagmez gain, 1828ko dotrinan beste zenbaitetan “**norbera**” izenordainez baliatzen da perpaus elkarkariak osatzeko:

1828ko dotrina

...; bere burua il, edo ilteco peligran iminten dabenac; eta **norberari**, edo besteri birao eguiten deutsenac.

43/44. orr.

E. Ezauquera osoagaz pensamentu loiyetan gustu artzaiten dabenac, obrazco gauzaric eguitemo gogoric equi ez arren; gauza loiyac cantau, esan, edo guztuz enzuten dituzanac; eta **norberagaz** edo bestegaz escuca loiyac, edo gauza desonestuac dauquezanac, edo equi gura dituzanac.

45. orr.

Beste behin, eta testu berean, “**X-en burua**” sintagma eta **norbera** izenordaina elkarren ondoan ditugu sintagma bakarra osatzen dutela:

1828ko dotrina

I. Cer da birao eguitia ?.

E. Da batec, edo **norberaren buruentzaco**, edo besterentzaco gachen

bat escatutia.

44. orr.

Askotan perpaus bihurkariak, pasiboekiko analogiaz osotuak agertzen zaizkigu eta **zeure burua ikusi duzu**-ren ordez, **ikusi zara** eta antzekoak ditugu. Honetaz honakoa esaten digu Euskaltzaindiak *EGLU - I* liburuan:

“(Dena den, bada hemen istilu bat, egiatan azterketa sakonagoa merezi lukeena. Alegia, gero eta zabaltzenago ari dira "Ikusten naiz" eta antzeko formak "Neure burua ikusten dut"-en ordez. Askotan, jakina, bi egiturak dira zilegi eta biek esanahi desberdina dute.... ..Baina "neure burua gorrotatzen dut" bezalako esapide jatorraren ordez, "gorrotatzen naiz" eta antzeko trakeskeriak ugaltzen ari dira....)”

Euskaltzaindia: *Euskal gramatika. Lehen urratsak - I*. Bilbo - 1985. (107. orr.)

Baditugu geure testuotan ere honelako "trakeskeriak". 1828ko dotrinan, esaterako:

I. Eta ilteco peligruban confesore bagaric **ecusten danac**, cer eguin biar dau ?.

49. orr.

Eta 1872ko Ruth-en liburuan:

Garbitu zaitez bada, eta **usaindu zaitte** eta imini eguizuz ceure jazteco oneenac,...

III - 3

1.6.- Perpaus elkarkariak:

Perpaus mota honi dagokion izenordaina “**alkar**” dugu. Jakina denez, izenordain honek kasu markak ametitzen ditu. Dena den, 1828 eta 1858ko dotrinetan, bakar bakarrik sozietibo marka duela agertzen zaigu. Ikus dezagun:

1828ko dotrina

Irugarrena, gorputza, ta arimia batu cituzan **alcarregaz**.

22. orr.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Matrimoniocua ?.

E. Ezconduteco, ta ezconduei graciai emoiteco, ceinegaz **alcarregaz** baquian vici ditezan, eta Cerureco aci daguiyezan seme alabac.

77. orr.

1858ko dotrina

Irugarrena á arime eta gorputsa batu eguisen **alcarregas**.

8. orr.

I. Setaraco da Sacramentu santu Matrimoniocoa ?.

E. Esconduteco eta esconduei emoiteco grasie, seinegas visiditesan **alcarregas** baquian eta asi daguiesan seme alabac cerureco.

29. orr.

1872ko Loiolako eskuskribuan, aldiz, ez da “**alkar**” izenordaina agertzen eta perpaus mota hau beste sintagma batez osotua dugu; “**bat bestiari**” hain zuzen:

1872 (Loiola)

Berac bada lo eguin eban bere oñetan gauba pasau zan artiño. Eta jagui zan guizonac **bat bestiari** esagutu ~~atza~~ baño lenago, eta esan eutsan Boozec: Aitu izu, iñoc jaquin ez dajela zu ona etorri zariala.

III - 14

Dena den, eskuskribuan agertzen diren zuzenketen arabera eta Endrike Knörr-ek¹ aditzera eman zigun Pariseko testuaren transkripzioan ikus daitekeenaren arabera, Jose Ignacio Aranak pasarte honen moldaketa egin zuen eta “**alkar**” izenordaina ezarri zuen:

1872 (Parisekoa)

Lo-eguin eban bada bere oñetan gauba pasau zan artiño. Eta jagui zan guizonac **alcar** esagutu baño lenago, eta esan eutsan Boozec: Aitu-izu, iñoc jakin ez dajela zu ona etorri zariala.

III - 14

Lan honetarako kontutan hartu ez badut ere, Azkuek 1925 urtean Laudion egin zuen *Erizkizundi Irukoitza*² izeneko inkestan, perpaus mota honen adibidea eman zigun XX. galderan:

alkar ikusiko dogu

II, 52 galdera

¹ KNÖRR, Endrike: "Otro texto de Llodio. El *Libro de Ruth* por Ignacio Galindez". in *Symbolae L. Michelena*. (1055 - 1062 orr.) J.L. Melena arg. UPV / EHU. Gasteiz - 1985.

² ECHAIDE, Ana M^a: *Iker - 3. Erizkizundi Irukoitza (euskara 1925)*. Euskaltzaindia. Bilbo - 1984.

1.7.- AHAL IZAN, EZIN IZAN eta BEHAR IZAN aditz lokuzioen erabilera:

Euskaltzaindiak *EGLU - II*-an honakoa dinosku **AHAL IZAN** eta **EZIN IZAN** aditz lokuzioen erabilera eta jokabideaz:

“Perifrasi multzo horietan, aditz nagusiak du beti aditz laguntzaileen jokabide mota finkatzen, eta ez sekula ere **ahal**-ek. Aditz nagusia **nork** gabekoa baldin bada, nahi eta ez **izan** edo ***edin** aditz laguntzaileak erabili beharko dira, eta **nork**-duna denean, berriz, ***edun** edo ***ezan**. Hots, **etorri behar/nahi izan dut** bezalako perpausen parean, ez dugu ***etorri ahal izan dut** bezalakorik aurkituko.”

Euskaltzaindia: *Euskal gramatika. Lehen urratsak - II*. Bilbo - 1987. (456. orr.)

BEHAR IZAN-en kasuan, aldiz, ez digu honen arau edo gomendio zehatzik egiten:

“Perifrasi multzo horren mende doan aditza iragankorra baldin bada, ***edun** forma aukeratuko dugu...”

Aditza, aldiz, iragangaitza baldin bada, bi jokabide aurkitzen dira euskal hitzuan eta idazleen artean. Jokabide hedatuena **ukan** aditza erabiltzekoa da,Baina **izan** laguntzailea ere erabilia izan da eta erabilia da lehenagoko eta egungo testuetan, ekialdean nola mendebaldean.”

Euskaltzaindia: *Euskal gramatika. Lehen urratsak - II*. Bilbo - 1987. (450-451. orr.)

Ikus dezakegunez, erabilerarako gomendiorik eman ordez, orain arteko erabileraren deskribapena baino ez digu egiten Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordeak. Dena den, irakaskuntza munduan gaur egun gero eta gehiago ari da zabaltzen lehenagoko bien pareko jokabidea. Hau da, “**joan behar dut**”-en antzekoak gero eta gutxiago ari dira erabiltzen.

Pasa gaitezen orain, aztergai ditugun testuetan zer gertatzen den ikustera.

1.7.1.- AHAL IZAN:

Oso gutxitan agertzen zaigu aditz lokuzio hau dagozkigun testuetan, eta ezin asma dezakegu zein den dagokion jokaera. 1828ko dotrinean birritan agertzen zaigu. Lehenengoan aditz nagusia iragankorra dugu:

E. Da gauza bat **esan**, eta **pensau al leitequianic** andiyena ta miragarriyena:...

17. orr.

Bigarrenean, aldiz, **nor** erako aditz laguntzaileaz jokaturia dugu baina kasu honetan aditz nagusia da eta ez dago beste aditz baten menpe:

E. Ezarten yacala seiñari ura, **albaledi** burura, ta ezpabere gorputzeco

zaticic andiyenera,...

58. orr.

1858ko testuan behin agertzen da baina jokatu gabe:

E. Bai, jaune, eta eiten daudie pecatu mortala espadaudie erresibitan **al isenic**, edo erresibitan badaudie pecatu mortalian dagosala.

29. orr.

1872ko Ruth-en liburuan ez da behin ere agertu perifrasi multzo hau.

Ahalezkotasuna adierazteko, gure testuon itzultzaileek maizago erabili izan dituzte ahalezko aditz perifrastikoak aipatutako aditz lokuzioa baino. Esate baterako:

1828ko dotrina

I. Eta iñori on eguitiarren, edo iñoc erregututa, **eguin lei**, guzurragaz juramentu ?.

39. orr.

I. Eta gaubian cer **artu lei** ?.

E. **Artu lei** colaciñoan conciyenciya oneco gente artian usetan dana.

50. orr.

I. Cegaitic diñozu Jangoicoaren graciyan badago ?.

E. Cegaitic pecatu mortalian batec eguiten dituzan obra onacaz ecin merecidu lei, ta ecin pagau lei pecatuen zorrice; ta bai bacarric **alcanzau leiz**, edocelanbere, Jangoicoaganic mesederen batzuc.

53. orr.

I. Eta pecatu mortalen bat lotsaz confesau bagaric echi dabena **salbau leiteque** penitenciya eguinda ?.

65. orr.

I. Eta Purgatoriyora doazanac, pagau eztaudeelaco mundu onetan euren pecatuen zorra guc **socorridu guiñaiz** ?.

68. orr.

...: eta iminten dot propositu firmebat, ceure graciyc batera, ez gueiyago ofendiyetaco, eta apartetaco **ofendidu ciñaidazan** ocasiño guztiyeticaric;...

90/91. orr.

1858ko dotrina

I. Necesidadeco lansian noc **batiatu lei** ?.

E. Usu errasoecoa dauquen edoseinec.

21. orr

1.7.2.- EZIN IZAN:

Perifrasi multzo hau oso gutxitan agertzen zaigu ere gure testuotan, aurrekoa baino maizetxoago badugu ere. Kasu honetan ere, ditugun adibideei begira ezin esan dezakegu aditz laguntzailea aukeratzeko unean aditz nagusiak ala aditz lokuzioak agintzen duen; kasu guztietan aditz nagusia **nork**-duna baita eta ondorioz **nor-nork** aditz laguntzailea dugu guztietan (perpau pasiboetan izan ezik, jakina):

1828ko dotrina

E. Cegaitic pecatu mortalian batec eguiten dituzan obra onacaz **ecin mercedu lei**, ta **ecin pagau lei** pecatuen zorric; ta bai bacarric alcanzau leiz, edocelanbere, Jangoicoaganic mesederen batzuc.

53. orr.

E. Bai Jauna, bagoz beste batzuc, ceintzuei derechee gracia lagungarriyac, eta arimaco arguialdiyac, ceintzuc bagaric **ecin asi**, **ecin aurrera eronan**, ta **ecin acabau guiñaiquian** salbaciñoraco gauzaric.

55. orr.

I. Eta pecatuac gaitic zor dan penia **ecin pagau lei** penitencyagaz ezpada ?.

67. orr.

...Au da areriyoric andiyena, cegaitic ece **ecin gueuganic bota guiñai** araguiya; mundua ta Demonioa bai.

81. orr.

Hauetaz aparte, beste zenbaitetan era pasiboan dugu; adibidez:

1828ko dotrina

...Elessa Ama Santiaren Sacramentuac dira zazpi: lelengo bostac dira biar biarrac izatez edo borondatez, ceintzuc bago **ecin salbau leiteque** guizona echiten badituz desprecioz: beste biyac dira borondatezcoac.

54. orr.

E. Confesau leenago, ta **ecin confesau bada**, artu contriciñozco damua.

76. orr.

1858ko dotrina

...Elexaco Sacramentu santuac dire saspí, lelengo bostac dire necesidadecoac iseites edo vorondates, seinsuc bago **esin salbaulteque** guisona echiten baditus menosprecios; beste bieac dire borondatescoac.

20. orr.

E. Confesau lenago, jaune, eta **esin confesau bada**, eguin contrisiñooco actobat.

29. orr.

1872ko testuan, bestalde, behin baino ez zaigu aditz lokuzio hau ageri eta kasu honetan **nor** saileko laguntzailea dugu nahiz eta aditz nagusia **nor-nork**-ekoa izan:

Ruth-en liburua (1872)

Berac esaten eban: Aurkitu dot gracia ceure beguietan, neure jauna, consolau nasulaco eta berba eguin dozulaco ceure esclaven biotzara **comparau ecin nazalaco** ceure otzainen bategaz.

II - 13

Itxuraren arabera, perpaus hau pasiboa dela pentsa genezake, baina argi dago ez dela honelakoa. Honakoa perpaus pasiboen analogiaz osoturiko perpaus bihurkaria dugu, **X-en burua** sintagma erabili ordez.

Puntu honetara helduta, eten txiki bat egingo dugu aditz lokuzio honetaz osoturiko perpausen ordenaz aritzeko. Egun, jakina denez, lehen baino gutxiagotan erabiltzen dira **ahal izan** eta **ezin izan** aditz lokuzioak potentzialaz. Gehienetan, **izan**

eta **edun** aditzen indikatiboaz jokatzeko ditugu. Honelakoetan gainerako ezezko per-pausen egitura izaten dugu:

**ez naiz joan - ezin naiz joan
ez dut ekarri - ezin dut ekarri**

Aditz laguntzaile potentziala erabiltzean, analogiaz egitura bera eman ohi die-gu:

**ez naiz joan - ezin naiz joan - ezin naiteke joan
ez dut ekarri - ezin dut ekarri - ezin dezaket ekarri**

Honako egitura dugu, beraz:

EZIN + aditz laguntzailea + aditz nagusia

Ikertutako testuotan, aldiz, ez dugu inoiz indikatiboz jokaturako aditzik topatu-ko, baldintza errealeko perpausen batean ez bada. Gainerako guztiak, potentzialaz jokaturata daude eta ohiko ordena zaharra daukate. Hau da:

EZIN + aditz nagusia + aditz laguntzailea

Dakusagun zenbait adibide:

1828ko dotrina	1858ko dotrina	Ruth-en liburua (1872)
<p>E. Cegaitic pecatu mortalian batec eguiten dituzan obra onacaz ecin mercedu lei, ta ecin pagau lei pecatuen zorric;...</p> <p style="text-align: right;">53. orr.</p> <p>..., ceintzuc baga ecin salbau leiteque guizona echiten badituz desprecioz: beste biyac dira borondatezcoac.</p> <p style="text-align: right;">54. orr.</p>	<p>E. Da gausebat ain exelentia, ta admirabilia, sein esin esan, ta esin pensau leien;...</p> <p style="text-align: right;">5. orr.</p> <p>..., seinsuc baga esin salbauliteque guizona echiten baditus menosprecios;...</p> <p style="text-align: right;">20. orr.</p>	<p>... eta berba eguin dozulaco ceure esclaven biotzara comparau ecin nazalaco ceure otzainen bategaz.</p> <p style="text-align: right;">II - 13</p>

1.7.3.- BEHAR IZAN:

Aditz lokuzio hau maizago erabiltzen dute gure autoreek eta adibideak ikusita laguntzailearen aukera aditz lokuzioak berak, eta ez bere mendean doanak, egiten duela konproba dezakegu. Dakusagun, bada:

1828ko dotrina	1858ko dotrina	Ruth-en liburua (1872)
<p>I. Ceinbat gauza yaquin, ta entendidu biardituz Cristiñauac uso errazoezcora elzaiten danian ?.</p> <p style="text-align: right;">14. orr.</p>	<p>I. Seinbet gause iaquin, eta entendidu biarditus Cristiñeuec uso errasoecora elsaiten danian ?.</p> <p style="text-align: right;">3. orr.</p>	<p>..., eta bertan ichungo zara, eta engo zara: eta berac esango deutsu, cer eguin biar dozun.</p> <p style="text-align: right;">III - 4</p>

I. Eta acordetan bayaco guero, cer **eguin biar dau** ?.

64. orr.

I. Eta pecatu mortalian yausten dan guztiyan, **biar dau** batec bertati **confesau** parcatu daquiyontzat ?.

68. orr.

E. Ez, Jauna, bada orreec onac izan arren, eztira orduan eguin biar dirianac: orduan **egon biar dau** batec, ordu lauren baten guchiyenez, leen esan doguzan gauzac bere artian gogoan darabiltzala.

75. orr.

I. Eta Sacramentu Santu au artzaiteco gracyan **egon biar daudee** ezconduten dirianac ?.

77. orr.

I. Eta acordetan baiaco guero ser **eguin biardau** ?.

24. orr.

I. Eta pecatu mortalian yaustendan gustien **biardau** batec **confesau** bertati parcatu daquiunsat ?.

25. orr.

I. Eta Sacramentu santu au ondo erresibitaco **biar daudee egon** Jangoicoen grasian esconduten dirianac ?.

29. orr.

..., erosi eguizu eta guelditu zatez beragaz, eta contentautan ez pasaitia declarau naizu au berau, jaquiteco cer **eguin biar dodan**.

IV - 4

..., Eta Boozec esan eutson: Noemien soloa erosten dozun ain laster, **ezcondu biozu** Ruth Moabitarragaz,...

IV - 5

nor saileko aditz laguntzaileaz jokatua, perpaus pasiboetan baino ez zaigu agertzen 1828 eta 1858ko dotrinetan. Ruth-en liburuan behin ere ez daukagu:

1828ko dotrina

Ecusi dogu celan daquizon cer sinistu biar dozun, cein dan lelengoa: gatozan bigarrenera, cein dan cer **escatu biar dan** yaquitia.

29. orr.

I. Eta nos **euqui biar da** damua ?.

64. orr.

I. Eta pecatu venialac **confesau biar dira** ?.

70. orr.

E. Ez, Jauna, bada orreec onac izan arren, eztira orduan **eguin biar dirianac**:...

75. orr.

I. Eta infernuti librau, eta Gloriya alcanzetaco cer **eguin biar da** ?.

88. orr.

1858ko dotrina

Ecusi dogu ya ser **sinistu**, eta ser **escatu biardan**; ecusi daigun orain selan daquisun ser **obrau biardan**: esan eguidesu...

16. orr.

I. Eta nos **artu** edo **euqui biarda** damue ?.

24. orr.

E. Emoiteco entenditan, se logretaco pecatu benialen parcasinoia gause oneitati, **euqui biardala** euren damue.

26. orr.

I. Eta comuniño santuric frutu gueiago ateretaco ser **eguin biarda** ?.

28. orr.

Hauetaz gain, 1828ko dotrinan honako beste kasu hau daukagu:

Orregatiarren bada
ecandu biar zara
sarri ciñatutera
ta santigueta

3. orr.

Honako perpausa bihurkaria dugu; baina, lehenago ikusi dugun bezala, **X-en burua** sintagma erabili ordez, perpaus pasiboekiko analogiaz osatua da.

PERPAUS KONPOSATUAK

2.1.- Perpaus koordinatuak:

2.1.1.- Kopulatiboak:

ETA	BAITA... ...BERE
TA	EZTA... ...BERE
DA	EZ... ...BERE
ETA... ...BERE (BAI)	

Jakina denez, euskararen juntagailu kopulatibo nagusia **eta** dugu. Juntagailu hau, beraz, testu guztietan agertzen zaigu inongo salbuepenik gabe.

Zenbait fenomeno fonetikori erantzunez, **eta**-k hainbeste aldaketa jasan dezake. Berauen ondorioz **ta**, **da** eta **t'** formak ager dakizkiguke. Hauetatik euskara batu idatzian, azken hau da onartzen den bakarra eta bakar bakarrik orduak idazteko. Gure testuotan, aldiz, topatu ez dugun forma bakarra da.

Ikus ditzagun banan banan:

ETA

1828ko dotrina

..., oeric yaiguitorduan, etseric urteitorduan, Elessan sartutorduan, yaten asitorduan,

1858ko dotrina

..., prinsipalente oeric yaiquitorduen, etseric urteitorduen, elessan sarsaitorduen, iaten

Ruth-en liburua (1872)

Senarrac deituten san Elimelech, **eta** bere emastiac Noemi; eta euren seme biyec deituten

eta oera yoatorduan.	astorduen, eta oera joatorduen.	siren, batec Mahalon, eta bestiac Chelion, Efratheos-Juda-Bethlemocoac.
	12. orr.	2/3. orr.
E. Yaquinic, eta entendiduric Credo, edo articulu fedecoac.	E. Yaquinic eta entendiduric Credo, edo amalau Articulu fedecoac.	I - 2
	14. orr.	...: Neure alabia, neuc topauco zaitudez deutsut descansua
I. Eta ceinbat persona eta memoriya dauco ?.	I. Eta seimbet persona, eta memorie dauco ?.	eta eguingo dot ondo egon zaitezala.
	20. orr.	4. orr.
E. Jangoicoac libradu gaizala arimaco ta gorputzeco gach, eta peligru gustiyetarie.	E. Jangoicoac libredu gaguisela arimeco eta goputseco gach eta peligru gustiyetarie.	III - 1
	34. orr.	7. orr.
I. Biciric, ala ilic dago Jesucristo ostiya, eta Caliz consagradaun ?.	I. Visiric ala ilic dago Jesucristo ostie eta calix consagradaun ?.	IV - 13
	73. orr.	14. orr.
		...euqui deizun noc consolau daijen ceure arimia eta sostenidu dajen zure sartzarua.
		28. orr.
		IV - 15

Lehen aipatutako lehenengo laburdura, **ta** hain zuzen, ezin izan dezakegu topa Ruth-en liburuan baina beste bietan ez da arraroa.

TA

1828ko dotrina

E. Curtze santiaren † señaia gaitic, gueure † areriyoetic, libradu gaguizuz † gueure Jauna, ta Jangoicoa.	11. orr.
I. Ce areriyo dira orreec ?.	
E. Demonioa, Mundua, ta Araguaia.	13. orr.
E. Erromaco Elessa Ama Santiac daucazan, ta sinistuten dituzanac.	16. orr.
E. Bai Jauna, leen cituezan gorputz, ta arima eurecaz.	26. orr.
Lelengoa, Meza osoa entzutia Domeca, ta Jayetan.	47/48. orr.

1858ko dotrina

E. Da gausebat ain exelentia, ta admirabilia, sein esin esan, ta esin pensau leien; Jaun bat gustis ona, poderosoa, sabioa, justoa, gause gustien principio eta fine.	5. orr.
E. Bai Jaune euquisituesan gorputz, ta arime eurecas.	10. orr.
E. Jangoicoac es taigule echi yausten, da es consentitan pensamentu ta tentaciño deunguetan, seinsuques Demonioac gure daben yausigatesan pecatuen.	13/14. orr.
E. Fedia, Esperansia, ta Caridedia.	21. orr.

Era berean, **da** laburdura 1828 eta 1858ko dotrinetan baino ez zaigu agerrzen:

DA

1828ko dotrina

..., ceineri esquetan deitsadan bere conceciño garbiya gaitic, ta bere doloriac gaitic, gorde naguiala gaur, da beti gach guztiyetarie, bein bere ceure graciai galdu eztaguidantzat. Am.	95. orr.
--	----------

1858ko dotrina

E. Jangoicoac es taigule echi yausten, da es consentitan pensamentu ta tentaciño deunguetan, seinsuques Demonioac gure daben yausigatesan pecatuen.	13/14. orr.
---	-------------

ETA... ...BERE (BAI)

Baiezko kopulazioa adierazten duen sintagma hau testu guztietan daukagu, nahiz eta zenbaitetan baieztapena agertu ez. Dena den, topatu ditudan kontestuak ez dira oso ugariak. Ondoren, aipatutako kontestuak ikusiko ditugu:

1828ko dotrina

M. Bada beste ainbeste eguin biar deutsezu beste Santuen imaginai **eta** gorpu-zatizai **bere**.

I. Eguin biar deutsegu oraciano Angueruai, **eta** Santuai **bere** ?. 35. orr.

E. Mortalac, **eta** benialac **bere bai**.

60. orr.

...; beguiratuten dala norberen bicimodu, oficiyo, **eta** estaduco obligacianoetara **bere**:...

62. orr.

1858ko dotrina

I. Eingo deutsegu oraciano Angueru **eta** Santuai **vere** ?. 15. orr.

E. Mortalac, **eta** benialac **vere bai** jaune. 22. orr.

Ruth-en liburua (1872)

Cegaitic ce emon deutsiet ordenia nire crieduei inoç galaso ez zakidazula, **eta** egarriric badaucazu **bere**, juan zaite maletara eta edaizu urati neure criaduac edaten dabena.

II - 9

Baditugu baiezko kopulazioa egiteko beste zenbait sintagma ere, baina ez dira testu guztietan agertzen.

BAITA... ...BERE

Honakoa 1828ko dotrinan eta Ruth-en liburuan daukagu, bigarren honetan juntagailu izaeraz agertu ordez, lokailu agertzen bazaigu ere (ikus perpaus ilatiboak 39. orrialdean):

1828ko dotrina

E. Obra onen bat asten dogun guztiyan, edo tentacianoen baten, necesidade, edo peligraren baten aurquituten garianian: **baita bere**, oeric yaiguitorduan, etseric urteitorduan, Elessan sartutorduan, yaten asitorduan, eta oera yoatorduan. 12. orr.

E. Bai, Jauna, nagusiyagoac euren azpicoen alderaco, **eta** gurasoac euren humien alderaco dauqueezanac **bere**.

42/43. orr.

Ruth-en liburua (1872)

Baita bere aguintu eustan aimbeste demporaguino eguitariecaz ni batzanduteco garagarren eguiteraldia amaitu artian.

II - 21

Ezezko kopulazioa adierazteko, zenbait sintagma daukagu. Sintagma hauek ez dira era erregularrean agertzen testu guztietan.

EZTA... ...BERE

1828ko dotrina

E. Ez inori gachic eguitia, ez obraz, ez berbaz, **ezta** desioz **bere**.

43. orr.

E. Eztaudeenac gura munduco onratic, ez aberzatasunic, **ezta** laburrenic **bere:** edo beintzat euretan biyotza ifini eztaudeenac.

86. orr.

E. Aserreric artzaiten eztaquiyeenac, **ezta** bere apurric **bere.**

86. orr.

EZ... ...BERE

Ruth-en liburua (1872)

Icusiric bada Noemic ain sala andie Ruthen borondatia eta beragas yuateco guraria; es gueyago gurautzan contradesidu, **es** persuadidu **bere**, bere artecoetara yuateco.

I - 18

2.1.2.- Disjuntiboak:

EDO

ALA

Perpau disjuntiboen artean, juntagailu bi agertzen zaigu ikertzen ari garen testuetan. Gehien agertzen dena, **edo** dugu. Juntagailu hau orokorragoa da.

Bigarrenak, **ala** hain zuzen, oso erabilera murriztuta eta zehatza du. Gerorako ikusiko dugunez, behin baino ez zaigu agertu 1828 eta 1858ko dotrinetan.

EDO

1828ko dotrina

I. Ecusi cendun ilten, **edo** Cerura igoitzen ?.

16. orr.

I. Ave Mariya **edo** Salvia esaten dozunian nogaz berba eguiten dozu ?.

35. orr.

Elessa Ama Santiaren Sacramentuac dira zazpi: lelengo bostac dira biar biarrac izatez **edo** borondatez, ceintzuc baga ecin salbau leiteque guizona...

54. orr.

E. Da sentimentu, pena, **edo** damutasun eguiyazco bat peccatariyac bere biyotzian artzaiten dabena, Jangoicoa ofendidu dabelaco, **edo** infernuaren bildurrez, **edo** peccatuaren ezaintasuna gaitic, **edo** graciya, eta gloriya galdu dabelaco;...

62/63. orr.

I. Ostiya consagrada erdibituten, **edo** apurtuten bada, erdibituten ete da Cristoren gorputza ?.

73. orr.

1858ko dotrina

I. Ecusi sendun ileiten, **edo** Ceruetara igoitzen ?

5. orr.

I. Avemarie **edo** Salvia esaten dosunian nogaz verba eitendosu ?.

14. orr.

Elexaco Sacramentu santuac dire saspic, lelengo bostac dire necesidadecoac iseites **edo** vorondates, seinsuc baga esin salbauliteque guisona echiten baditus menosprecios; beste biac dire borondatescoac.

20. orr.

E. Da sentimentu, pena, **edo** damu eguiescobat arsaiten dabena peccatariac bere viotsian ofendidu dabelaco bere Jangoicoa isenic ain ona.

23. orr.

I. Ostie consagrada erdibitu **edo** apurtuten bada, erdibituitenda Jesuchristoen gorputse ?.

28. orr.

Ruth-en liburua (1872)

...: Neu naz Ruth ceure esclabia, zabaldu eguizu ceure capia ceure mempeco **edo** sierbien gañian, neure cenidia zarialaco.

III - 9

Eta berac esan eban: Alabia, bedeincatia izan zaitez Jaunagaitic, cegaitic ce oinzungo ontassuna da andiagoo lenengo ontassuna baño, aurquitu topau eztozulaco gaste probiac **edo** aberatsac.

III - 10

Berac erantzun eban: Errenuntzietan dot ceneitassunen derechoa; cegaitic ce eciñ dot nic amaitu **edo** amatau neure familien descendencia.

IV - 6

Egon zan Israelen costumbre **edo** oitura anchinaco bat ceneden artian, bai euren arteco batec ceditan ebanian bere derechoa beste bateri, cesiñoa izitico bali dia **edo** leguiaren conforme kenduten eban arec bere zapatia eta emoten eutsan bere cenidiari.

IV - 7

ALA

Mendebaldeko ekanduan gehien bat, ondo bereizten dira juntagailu bi hauen erabilera eremuak. Honi buruzko nolabaiteko azalpena Adolfo Arejitak¹ egin zuen:

“Esaldi bi alkarren aurrez aurre daukaguz. Batak bestea ukatu egiten dabe, edo beintzat bien arteko oposizino bat erakusten da.

Ezaugarri lotzaillea: **ALA**.

Ez daigun euskerazko «**ALA**» eta erderazko «**O**» gauza bardintzat jo, euskerazko ezaugarri hau mugatuagoa, zehatzagoa dogu ta.

Esaldi bien artean aukeratu bearra adierazten dau; *alternatiba* bat eskatzen dau. Esaldi bien alkar artu ezina adierazten dau **ALA** ezaugarriak.”

Txillardegik², antzeko azalpena egin zuen:

“Dirudienez *BETI erabil daiteke edo* juntagina: bai hautaketa adierazteko, bai berdinketa adierazteko ere. *Ala*, berriz, «*markatua*» denez, *HAUTAKETAN ez bestetan* erabil daiteke:”

Gure dotrinetan behin baino agertzen ez bada ere, oraintxe azaldutakoaren araberako kontestu egokian agertzen zaigula ikus dezakegu:

1828ko dotrina

I. Biceric, **ala** ilic dago Jesucristo ostiya, eta Caliz consagraduan ?.

73. orr.

1858ko dotrina

I. Visiric **ala** ilic dago Jesuchristo ostie eta calix consagraduen ?.

28. orr.

¹ **ARIJITA, Adolfo:** *Euskal joskera*. Leopoldo Zugaza editor. Durango - 1978. (53 - 54 orr.)

² **Txillardegik:** *Euskal gramatika*. Ediciones vascas. Donostia - 1978. (407 orr.)

2.1.3.- Distributiboak:

BATA... BESTEA...
ZELAN... HALAN...

EZ... EZ...
HALAN... ZEIN...

Testu guztietan agertzen zaigun forma bakarra, lehenengoa dugu. Gainerakoak, gehien bat, 1828 eta 1858ko dotrinetan ditugu.

BATA... ...BESTEA**1828ko dotrina**

E. Dirialaco personac **bata bestia** eztirianac, izan arren Jangoico eguiyazco bacar bat.

18. orr.

E. Naturaleza bi, **bata** Jangoico dan partez, eta **bestia** guizon dan partez: entendimentu bi, Jangoico dan partez **bata**, eta guizon dan partez **bestia**: eta borondate bi, **bata** Jangoico dan partez, eta **bestia** guizon dan partez.

20. orr.

1858ko dotrina

E. Naturaleza vi, **vata** Jaungoico dan partes eta **vestia** guison dan partes: Entendimentu vi, Jaungoico dan partes **bata**, eta **bestia** guison dan partes; eta borondate vi, Jaungoico dan partes **bata**, eta **bestia** guison dan partes.

7. orr.

Ruth-en liburua (1872)

Senarrac deituten san Elimelech, eta bere emastiac Noemi; eta euren seme biyec deituten siren, **batec** Mahalon, eta **bestiac** Chelion, Efratheos-Juda-Bethlemocoac.

I - 2

Seinsuec escondu sirian Moabitaco andracas, isenes **batac** Orpha, eta **bestiac** Ruth: eta visi sirian bertan amar urtian.

I - 4

ZELAN... ...HALAN**1828ko dotrina**

...: betor gugana zure erreinua, eguin bedi zure borondatia **celan** Ceruan, **alan** Lurrian.

4. orr.

E. Eguin bedi zure borondatia **celan** Ceruan, **alan** lurrian.

32. orr.

1858ko dotrina

E. Eguin bidi seure vorondatia **selan** Ceruen **alan** lurrian.

13. orr.

EZ... EZ...**1828ko dotrina**

E. Jangoicoac **ezteigula** ichi yausten, **ez** consentietan pensamentu, ta tentacifio deunguetan, ceintzucaz Demonifioac pecatuan yausi eraguin gura deuscun.

33. orr.

E. Pecatu beniala, faltau **ez** azquero juramentuaren eguiyac, **ez** justiciyac.

40. orr.

E. **Ez** iñori gachic eguitia, **ez** obraz, **ez** berbaz, ezta desioz bere.

43. orr.

1858ko dotrina

E. Es iñori gachic eguin **es** obras, **es** berbas, **es** deseos.

17. orr.

E. **Es** quendu, **es** equi, **es** gure bestena javien vorondates contra.

18. orr.

E. **Es** juzgueu fundamentu bago char projimue gaitic, **es** esan, **es** ensun bere faltac.

18. orr.

E. Ez quendu, **ez** euqui, ta **ez** gura izatia
besteren gauzaric, yaubiaren borondatez contra.

46. orr.

E. Eztaudeenac gura munduco onreric, **ez**
aberaztasunic, ezta laburrenic bere: edo beintzat
euretan biyotza ifini eztaudeenac.

86. orr.

HALAN... ...ZEIN

1828ko dotrina

E. Jangoicoaren graciyan badago, merecietan dau arimaco graciya, eta
ceruco gloriya gueiyagotutia; paguetan dituz bere pecatuen zorrac, eta al-
cancetan dituz Jangoicoaganic ondasun andiyac, **alan** bere ariman, **cein**
bere gaucetan, conbenietan bayacaz.

52/53. orr.

2.1.4.- Adbertsatiboak:

BAI(N)A
EZPADA

EZPABERE
BAINO

BAI(N)A

Honako juntagailu hau zenbait bilakaera fonetiko jasan ondoren, era ezberdinetan ager dakiguke. Aipatutako aldaketak honako ordenean gertatzen dira:

baina > baia > baie > baye

Urratsez urratseko azalpena, honakoa dugu:

baina > baia : bokal arteko sudurkaria erori da.

baia > baya : /i/ bokala erdikontsonante bihurtu zaigu eta idazkeran <y>

grafemaz adierazia topa dezakegu.

baya > baye : erdikontsonanteak, asimilazioz, /a/ren ixtea eragin du.

Testuotan forma bi hauek topa ditzakegu: <baya> eta <baye>. Azkena hau, zenbaitetan, <baie> idatzia agertzen da 1858ko dotrinan eta 1872ko Ruthen liburuan. 1828ko dotrina askoz ere erregularragoa da eta beti <baya> dugu.

1828ko dotrina

E. Jangoico dan partez, ez Jauna, dalaco espiritu purua; **baya** bai guizon dan partez.

19. orr.

E. Eztauquee sentiduco penaric Infermucoac leguez: **baya** bai Jangoicoaren arpeguiya iños ecusi ecina.

57. orr.

E. Gueiyenac esaten daudee atriciñozcoa asco dala; **baya** obeto eta segurugo da contriciñozcoa eroatia:...

63/64. orr.

E. Echiten badau lotsaz, bildurrez, edo esamina faltaz ez Jauna, **baya** bai aitzuta echiten badau, edo bere erru bagaric.

64. orr.

E. Ondo da confesetia, **baya** eztago obligaciñoeric.

70. orr.

1858ko dotrina

E. Jaungoico dan partes es jaune, dalaco espiritu purue, **baye** bay guison dan partes.

7. orr.

E. Esan daroe atrisiñoecoa dala bastante, **baie** obeto eta segurugo da eroatia contriciñoecoa;...

24. orr.

E. Ondo litsateque, **baie** estago obliguesinoric.

25. orr.

E. Es jaune; **baie** da gause ona, eta provechu andicoa eitia.

26. orr.

E. Visiric jaune, ceruetan dagoan legues; **baie** estalduric oguien eta ardaoen irudie edo accidentiacas.

28. orr.

Ruth-en liburua (1872)

..., eta doa Moaldera, Noemi bere emaste, eta bere seme biecas, **baye** bertan il sirialaco Elimelech eta bere seme biyec, biurtu san Noemic Bethlene-ra,...

I - 0

Ez dot neguetan ni nazala ceure cenidia; **baie** dago beste bat neu baño urcoago dana.

III - 12

..., gure badau gueratu ceugaz urcotasun derechoagaitic, izin dila ordu onian: **baie** berac gura ez padau, neuc duda baric artuco zaitudaz, bici da Jauna. Loeguizu goxera arte.

III - 13

Ruth-en liburuan ez dut bestelako juntagailurik topatu. Beste dotrina bietan, aldiz, honako hau dugu:

EZPADA

1828ko dotrina

E. Ez Jauna **ezpada** Jangoico eguiyazco bacar bat.

17. orr.

E. Trinitade guztiz santuco bigarren personia, cein dan Semia, guizon eguin zala Ama Virginiaren errai guztiz garbietetan; ez guizonaren obraz, **ezpaba** Espiritu Santuaren birtutez, bere doncellatasunaren calte бага.

21/22. orr.

E. Ez condenaduen lecuia, **ezpada** justoac egozan Linboa.

24. orr.

1858ko dotrina

E. Santissime Trinitadeco vigarren personia, sein dan semia, guison eguinsala Ama Virginiaren entraña gustiz garbietetan, es guisonen obras, **espada** espiritu santuen virtutes vere donsellatasunen calte vaga.

8. orr.

E. Es condenaduec egosan lecuere, **es pada** Limbora, non egosan justoac.

9. orr.

E. Es jaune, **espada** bacarric oguien eta ardaoen urudic edo acsidentiac seinsuc dirian useñie, coloria, gustue eta ganecoac.

28. orr.

1828ko dotrinan, aldiz, beste kasu bi gehiago dugu:

EZPABERE

Ondoko puntuan ikusi ahal izango dugunez, elementu hau lokailua izan daiteke. Honela izatekotan, perpaus adbertsatiboa barik, ilatiboa izango litzateke.

Dagokigun elementu hau juntagailua ala lokailua den ikusteko, beste juntagailu adbertsatibo batez ordezkia dezakegu; esate baterako **baizik (eta)**. Bigarren honen funtzio bera betetzen duela ikusten badugu, juntagailua da. Hala ez bada, **bestela** lokailuaz ordezkia dezakegu. Eta **bestelaren** funtzio bera betetzen badu, lokailua dugu.

1828ko dotrina

E. Bai, Jauna, eragozten da blasfemia bere, cein eztan besteric, **ezpabere** berba lotsabacoren batzuc Jangoicoaren, edo bere Santuen contra esatia; eta da pecatu mortala.

41. orr.

E. Bai, Jauna, baya ez bere oneraco, **ezpabere** bere caltian; eguiten dabelaco sacrilegiyo icaragarri bat, eta Judasen pecatua.

74. orr.

BAINO

1828ko dotrina

Laugarrena, Trinitade guztiz santuco bigarren personiac beragan artu, ta beragaz batu cituzan gorputz, ta arima oneec; eta alan, leen Jangoico **baño** etzana, Jangoico izatia galdu бага, gueratu zan guizon eguinic; ceinari derecho JESU Cristo.

22. orr.

E. Gurago izaitia gauza guztiyac galdu, bera ofendidu **baño**.

37. orr.

I. Eta pecatu venialac **baño** ezpadaucaz confesetara doianac, cer eguin biar dau damua, ta propositua segurututeco ?.

70. orr.

I. Ostiya consagraduan bago gorputza **baño** beste gauzaric ?.

72. orr.

E. Emoiten yaque pecatu capitalen ucena, dirialaco beste pecatuen buru, iturri ta sustraiyac leguez: eta pecatu mortalen ucena echatorque ain ondo, bada ascotan venialac **baño** eztira.

78. orr.

2.1.5.- Ilatiboak:

Perpaua mota honen izaera kontutan hartuta, zalantzarik gerta liteke oso, elkartuen artean ezartzeko egokitasuna. Elkarketan, perpauen arteko lotura **sintaxi** mailakoa da. Honek elkartutako perpauak elkarren ondoan egotea eskatzen digu eta lotura juntagailu baten bidez lortzen da. Perpaua ilatiboetan, aldiz, lotura **diskurtso** edo **enuntziatu** mailakoa dugu. Hau da, perpauak ez zaizkigu elkarren ondoan agertzen baina lehenago esandakoarekin nolabaiteko lotura badugula ikusten da.

Aipatutako lotura adierazten duen elementua ezin esan dezakegu *juntagailua* denik, ez baitu benetako elkarketa osotzen. Elementu hau, beraz, *lokailua* dela diogu, lotura adierazten baitu baina ez elkarketa.

Lokailuek ez dute zertan izan behar elementu autonomo eta bereziak. Berauen izaeraz, honakoa dinosku Euskaltzaindiak *EGLU - III (lokailuak)* liburuan:

“Jatorriz bestelakoak izanik, gerora zeregin honetara erakarritako hitzak edo esapideak dira *lokailuak* gehienetan. **Bestela** eta **halere** (=hala ere), adibidez, aditzondo dira, izatez. Eta horrela, gehienak.”

Euskaltzaindia: Euskal gramatika. Lehen urratsak - III. (Lokailuak). Bilbo - 1990. (18. orr.)

Esandakoaren arabera, beraz, zenbaitetan juntagailua eta lokailua elementu bera izatea gerta dakiguke eta bata ala bestea den jakiteko eragiten duen lotura motari egin behar diogu so. Adibide gusa 1828ko dotrinaren perpaua biok ikus ditzakegu:

a - I. Cetaraco emon euscuzan Jangoicoac cenzunac, **eta** gorputzeco alde guztiyac ?.

82/83. orr.

b - I. **Eta** biardan moduan comulguetan dirianac cer gueyago eguin biar daudee frutu andiyagoac alcancetaco ?.

74. orr.

Perpaua biotan lotura elementu bera dugu baina lortzen ditugun lotura motak erabat ezberdinak dira. Lehenengoan (**a**), perpaua bik bakarra osatzen du elementu honen bidez eta zenbait elisio gertatu da. Kasu honetan, **eta** juntagailua dugu. Bigarrenean (**b**), aldiz, **eta**-k eragiten duen lotura aurretik esandako zerbaitekin egiten da. Kasu honetan, juntagailu ordez lokailua dela esango genuke.

Euskaltzaindiak lokailuen sailkapena eskaintzen digu lehen aipatutako *EGLU - III (lokailuak)* liburuan erdiesten den lotura motari begira:

a.- Emendiozkoak:

Hauek nolabaiteko gehitze zentzua dute.

b.- Hautakariak:

Aurreko perpauaren kontra jartzen duten aukera edo hautabidea aurkezten dute.

c.- Aurkaritzakoak:

Perpaua hauek, lehenago esandakoarekiko kon-

trakotasuna markatzen dute.

d.- Ondoriozkoak:

Lehenago baieztatzen denaren ondorio bat azaltzen dute.

e.- Kausazkoak:

Kasu honetan, perpaus hauek lehenago esandakoren zergatia edo, emanten digute aditzera.

Gure testuotan honako lokailu hauek topa ditzakegu:

a.- Emendiozkoak:

BERE

ETA

HONEZAZ GAINETIK

BERE

1828ko dotrina

1858ko dotrina

Ruth-en liburua (1872)

I. Orlan zuc **bere** baucazu zure Angueru guardacoa ?.

36. orr.

E. Bai, Jauna, eragozten da blasfemia **bere**, cein eztan besteric, ezipabere berba lotsabacoren batzuc Jangoicoaren, edo bere Santuen contra esatia; eta da pecatu mortala.

41. orr.

E. Bai, Jauna, paguetan da Jangoicoaren graciyan eguiten dirian obra on guztiyacaz **bere**, eta Indulgenciyac irabaciycagaz.

67. orr.

Eguizuz, bada, zuc **bere** alequin guztiyac topetaco, San FRANCISCO SALESec, eta Santa TERESAc diñueen leguez, ascoren artian oneen bat;...

89. orr.

I. Orretati suc **bere** bauquesu Angueru guardacoa ?.

15. orr.

..., su juaten saran lecura, neuc **bere** juangonas;...

I - 16

Enterretan saran lurrian, anche bertan neuc **bere** ilgonas;...

I - 17

Elementu honen erabileraz, ohar txiki bat egin behar dugu. Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, **Izenordain pertsonala + bere** kontestuetan, 1828 eta 1858ko dotrinetan izenordaina era arruntan emanda daude:

1828koan:

...**zuc** bere...

1858koan:

...**suc** bere...

1872ko testuan, aldiz, izenordaina era indartuan agertzen zaigu:
...**neuc** bere...

ETA

Perpaus kopulatiboetan aipatu ditugun honen aldaki guztiak ager dakizkiguke hemen ere. Dena den, gehien agertzen dena honako hau da.

1828ko dotrina	1858ko dotrina	Ruth-en liburua (1872)
I. Eta zuc cetaraco esaten dozu ?. 15. orr.	I. Eta seimbet persona ?. 6. orr.	Eta juan san Juda Bethlemeco gison bat peleginertara Moab erreñuranthza bere emaste eta bere seme biyecas. I - 1
Eta Justuena, edo Abrahamen Senoa da lecu bat, ceinetara yoaten cirian, JESU Cristoc gu erredimidu baño leenago, graciyan ilten cirianen arimac,... 25. orr.	I. Eta ser entenditendosu Encarnaciñoco misterioba gaitic ?. 8. orr.	...: eta jazo zan a soloa zala Booz erechon guizon batena, Elimelechenen senidia arteco batena. I - 3
I. Eta Munduaren acabua baño leenago juzgaduac izango gara ?. 26. orr.	..., eta guero emondaigule glorie. 13. orr.	Eta escari-eguin eban batuteco zelaien gueratuten zirian garagar buruac, ... II - 7
Eta bota ura berbacaz batera. 59. orr.	..., eta dalaco vere imaginia erreverensiadu daigun. 15. orr.	Eta ezan eutsan: ¿ Nor zara ? III - 9
I. Eta noiz artzaiten dogu Sacramentu Penitenciyacoa ?. 60. orr.	I. Eta acordetan baiaco guero ser eguin biardau ?. 24. orr.	Eta berac eranzun eban:...

TA

1828ko dotrina

...**ta** bedeincatua da zure sabeleco frutua, JESUS.
5. orr.

...; **ta** desterru au igaro azquero eracuscuzu JESUS, ceure sabeleco frutu bedeincatua.
6. orr.

..., **ta** Cristo ceure Semiaren Guizon eguitia ezagutu dogunoc, bere Pasiño ta Curtzia gaitic, betico gloriyara eroanac izan gaitezcan. Amen.
100. orr.

BAITA... ...Ø

1828ko dotrina

Baita artzaiten dot gogoia irabazteco gaur dirian Indulgenciya guztiyac ...
94. orr.

BAITA... ...BERE**Ruth-en liburua (1872)**

Baita bere agiundu eustan aimbeste demporaguiño eguitariecaz ni bazanduteco garagarren eguiteraldia amaitu artian.

II - 21

EZ DA... ...BERE**1828ko dotrina**

E. Ez da mundu guztiya gatic **bere**.

39. orr.

HONEZAZ GAINETIK

Honakoa, elementu biz osatuta badago ere, lokailu bakartzat har dezakegula uste dut; **gainera** lokailuaren parekoa da. 1872ko testuan baino ez zaigu agertzen:

Ruth-en liburua (1872)

...eta **onesaz ganetic** atera eban, eta emon eutsan janarien sobrac...

II - 18

Eta **onesaz gañetic** esan eutsan: sabaldu eguizu oyala cubritan zarian oyala,...

III - 15

b.- Hautakariak:**EZPABERE**

Nire azterketan topatu dudan lokailu hautakari bakarra **ezpabere** da. Perpaus adbertsatiboen atalean ikusi ahal izan dugunez, zalantzarria gerta dakiguke elementu honen izaera. Bertan ikusi dugunez, **bestela** lokailuaren parekoa bada lokailua dugu.

Euskaltzaindiak *EGLU - III (lokailuak)* liburuan darabilen formulari so eginez, honelako egoera baten aurrean izan behar dugu lokailua izateko:

A, ezpabere B = A, eta A ez bada, B

1828ko dotrinan elementu hau agertzen zaigun hiru kasuetatik, nire ustez honako honetan bakarrik dugu lokailua:

EZPABERE**1828ko dotrina**

E. Ezarten yacala seiñari ura, albaledi burura, ta **ezpabere** gorputzeco

zaticric andiyenera, eta ura ezartorduan esaten diriala, batiatuteco adiyagaz, berba oneec: Nic batiatuten zaitudaz Aitaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren ucenian. Amen.

58. orr.

c.- Aukaritzakoak:

BAI(N)A

BARRIZ

BAI(N)A

Beste asko bezala, elementu hau juntagailua zein lokailua izan daiteke. Bere izaeraz, kontestuaren arabera jabe gaitzke. Elkarren artean dauden perpaus bi lotzen baditu, juntagailua dugu; bestela, lokailua.

Dena den, testu eta eskuzkribu zaharretan, puntuazio zeinuen erabilera ez zen gaur egun darabilguna bezain erregularra eta batzutan zalantzatan egon daiteke guretzat berauen interpretazioa.

Batzutan argixeago badago ere, beste batzutan zalantzak izan ditut honako adibideak aukeratzean. Hala ere, nire ustez ondoko adibideetan ditugunak perpaus ilatibo aukaritzakoak ditugu:

1828ko dotrina

...: eta ichi ez eiguzu tentaciñoan yausten: **baya** libradu gaguizuz gacheric. Amen.

4/5. orr.

..., eta yarten da Jangoicoaren gracyan: **baya** atriciñozco bacarragaz ez, confesiñoagaz batera ezpada.

63. orr.

E. Biciric, Jauna, Ceruan da goan leguez, **baya** estalduta oguiyaren eta ardaoaren irudiyacaz, edo accidentiacaz.

73. orr.

E. Bai, Jauna, **baya** ez bere oneraco, ezpabere bere caltian;...

74. orr.

1858ko dotrina

E. Baie gaguisus libradu gacherianic..

14. orr.

Ruth-en liburua (1872)

..., eta doa Moaldera, Noemi bere emaste, eta bere seme biecas, **baye** bertan il srialaco Elimelech eta bere seme biyec, biurtu san Noemic Bethlene-ra,...

I - 0

...: Orphac mun eguin eutzan bere amaguñerrari eta biurtu san: **Baye** Ruthec alcarturic san bere amaguñerragas esan apartau beraganic.

I - 14

BARRIZ

1828ko dotrina

E. Contriciñozcoa amore garbiti datorrelaco, atriciñozcoa **barriz**, bildureti: contriciñozco damuegaz; confesau baño leenago, parcatuten yacaz bateri pecatu mortalac, eta yarten da Jangoicoaren gracyan:...

63. orr.

d.- Ondoriozkoak:**BADA
HORREGATIARREN****HORREGA(I)TIK
ORDUAN****BADA**

Guztien artean maizen agertzen den lokailua dugu berau. Horra hor zenbait adibide:

1828ko dotrina

I. Bada curtziaac baucó orreen contra indarric ?.

13. orr.

M. Bada beste ainbeste eguin biar deutsezu beste Santuen imaginai eta gorpu-zatiyai bere.

35. orr.

I. Cer eguin biar dau **bada** ?.

68. orr.

E. Ez, Jauna, **bada** ain osoric dago zati batian, cein bestian;...

73. orr.

I. Bada cer eguingo dau pecatu mortalian dagoanac ondo artzaiteco ?.

76. orr.

...; lagun eguidazu, **bada**, gaurco ta neure bici guztico obra, berba, ta gauza guz-tiyetan,...

96. orr.

1858ko dotrina

I. Bada cursiac virtuteric baucó euren contra ?.

3. orr.

M. Bada vardin eingo deutsesu veste Santuen imaginai vere.

15. orr.

I. Ser eguingo dau **bada** ?.

25. orr.

E. Es jaune, **bada** ain osoric dago satibaten, sein bestian, ain osoric ostie chiquien sein andien; eta ostien apurchuric chiquienian sein ostie osoan, dagoalaco Jesuchristoen gorputse osoric ostie gustien, eta osoric ostien edosein sati edo apurrian.

28. orr.

I. Bada ser eguin godau pecatu mortalian dagoanac ondo erresibitaco ?.

29. orr.

Ruth-en liburua (1872)

Icusiric **bada** Noemic ain sala andie Ruthen borondatia eta beragas yuateco guraria;...

I - 18

¿Segaitic **bada** deituten nosube Noemi, humildu nabenic Jaunac, eta afligidu nabenic Gustis poderosoac?

I - 21

Egon zan **bada** garagar buruac topetan soloan arratsaldeartean:...

II - 17

Ceñeri eranzun eutsan Noemic: Bedeincatua izin dila bera Jaunagandic: **bada** biciecaz euki dabena caridadia euki dau bere defuntuecaz:...

II - 20

Berac **bada** lo eguin eban bere oñetan gauba pasau zan ar-tiño.

III - 14

HORREGA(I)TIK

1828ko dotrinan ondoriozko lokailu hau agertzen zaigu behin. Baina honekin batera, testu berean **orregatiarren** dugu. Azken honek aurrekoaren funtzio bera betetzen du, baina bertan "**-gatic**" eta "**-arren**" atzizki kausalak elkarren ondoan agertzen zaizkigu lokailu bakarra osatuz.

1828ko dotrina

...: **orregaitic** erregututen deusat Santa Mariya beti Virginiari, San Miguel Arcangeluari, San Juan Bautistari, San Pedro, ta San Paulo Apostolui, Santu guztiyai, ta ceuri neure Aita espirituala, erregutu daguiyozula nigaitic gueure Jaun eta Jangoicoari.

90. orr.

HORREGATIARREN

1828ko dotrina

Orregatiarren bada
ecandu biar zara
sarri ciñatutera
ta santiguetera

3. orr.

ORDUAN

1828ko dotrina

...: orduan egon biar dau batec, ordu lauren baten guichiyenez, leen esan doguzan gauzac bere artian gogoan darabiltzala.

75. orr.

Ruth-en liburua (1872)

Eurac **orduan** altzauric boza, asi sirian barriro negarres:...

I - 14

Berac **orduan** macurturic bere arpeguia lurreraño eguin eutzan erreberencia guztiz andi bat,...

II - 10

e.- Kausazkoak:

ZE
ZE(R)GA(I)TIK

ZE(R)GA(I)TIK... ...(E)ZE

Perpauk hauek oso hurbil daude menpeko perpauk kausalekin, baina lokailuok ez dute behar beste indarrik edo, perpauk biz bakarria osatzeko eta elkarren ondoan agertzen zaizkigu.

ZE

Izatez, lokailu hau **zer** galde hitza baino ez da, zeini atzeko dardakaria, /r/ hain zuzen, erori zaion. Lokailu hau, 1858ko dotrinaran eta behin baino ez zaigu agertzen:

1858ko dotrina

E. Emoiteco entenditan, **se** logretaco pecatu benialen parcasinoia gau-se oneitati, euqui biardala euren damue.

26. orr.

ZE(R)GA(I)TIK... ...-Ø

1828ko dotrina

E. **Cegaitic** pecatu mortalian batec eguiten dituzan obra onacaz ecin merecidu lei, ta ecin pagau lei pecatuen zorric; ta bai bacarric alcanzau leiz, edocelanbere, Jangoicoaganic mesederen batzuc.

53. orr.

ZE(R)GA(I)TIK (E)ZE... ...-Ø

Lokailu hau aurrekoaren aldakia da, zeinetan **(e)ze** elementua gehitu den. Honakoa gehien bat Ruth-en liburuan agertzen zaigu eta 1828ko dotrinan behin baino ez:

1828ko dotrina

E. Oneganic iñes eguiten da, ta au venciyetan da gorputza neque pian erabiliyagaz, bere gustuac ucatuagaz, ta barau eguinagaz. Au da areriyoric andiyena, **cegaitic ece** ecin gueuganic bota guiñai araguiya; mundua ta Demoniiñoa bai.

81. orr.

Ruth-en liburua (1872)

...; **segaitic se** seuben atsacabiác gueyetutendau neuria, eta Jangoicoaren escuba dago yaguiric neure contra.

I - 13

Ruthec erantzun eutzan: Ez nei-su indarric eguin, su[x] desamparetaco, eta juan nadin; **segaitic ce**, su juaten saran lecura, neuc bere juangonas;...

I - 16

Cegaitic ce emon deuntsiet ordenia nire crieduei iñoc galaso ez zakidazula,...

II - 9

Ez zaitez ba bildurtu, **cegaitic ce** nic eguingo dot ceugaz aguinduten deustazun gustia. **Cegaiti ce** neure urien atez barrure bici danac daki, zu zariala birtutezco andria.

III - 11

Cegaiti ce, au da guizon bat gueldituco eztala cumplidu artian esan dabena.

III - 18

Cegaitic ce ez tago beste ceneric ez pada pazara zu lenengoa zariana, eta neu bigarrena nazana.

IV - 4

Cegaitic ce jajo da ceure erreñatic, ceñec ametan zaitu:...

IV - 15

2.2.- Menpeko perpausak:**2.2.1.- Konpletiboak:**

-(e)LA

-(e)NA

2.2.1.1.- Zehargalderak:

-(e)N

-Ø

-(e)LA**1828ko dotrina**

Lelengoa, sinistu Jangoico guztiz poderoso bacar bategan.

Bigarraena, sinistu dala Aitia.

Irugarrena, sinistu dala Semia.

Laugarrena, sinistu dala Espiritu Santua.

Bostgarrena, sinistu dala Criyadoria.

Seigarrena, sinistu dala Salvadoria.

8. orr.

E. Elessa Santan dagozala pecatuac parquetaco mediyoac, ceinzuc dirian Sacramentu Santuac.

27/28. orr.

E. Erreinau daiyala Jangoicoac gure arimetan emen lurrian gracyaz, eta guero emon daigula gloriya.

32. orr.

M.Jangoicoac guztiyoc ara eroan gaguizala. Amen.

89. orr.

1858ko dotrina

Ecusidogo Christiñeu sariala, Christiñeuen usen eta señaleti;...

3. orr.

I. Ser esan guredau dagoala yarriric Aite Jaungoico gustis poderosoen alde escoan ?.

10. orr.

E. Christiñeu fiel gustiec dauquiela parte bestien obra onetan gorputs baten satiec legues, sein den Elexia.

10. orr.

E. Elexa ama santiac dauque-sala medioac, eta erremedioac pecatuec parquetaco, seinsuc dirian Sacramentu santuec.

10. orr.

E. Erreineu daguila Jangoicoac gueure arimetan emen lurrian grasies, eta guero emondaigule glorie.

13. orr.

E. Isen gaitesala castu eta garbiac pensamentu, berva, eta obretan.

18. orr.

Ruth-en liburua (1872)

..., entzun ebalaco, Jaunac bi-urto situ**ala** beguiac euren errirancha eta emon ebalaco janaria.

I - 6

Consedidu deisubela arquite-tia descansua, suertian tocau jachubesan senarren echetan:...

I - 9

...; eta beragaitic daki Booz dala bere aidia.

II - 0

...: eta jazo zan a soloa zala Booz erechon guizon batena, Elimelechenen senidia arteco batena.

II - 3

...eta iñoc ez cematu dajola batuten dituzanian.

II - 16

Bedeincatua izin dila ceugaz misericordia euki dabenac.

II - 19

Ez dot neguetan ni nazala ceure cenidia; baie dago beste bat neu baño urcoago dana.

III - 12

-(e)NA

-(e)LA atzikia emankorrena dugu euskaran perpaus konpletiboak osatzeko; baina honetaz gain, honen emankorra ez den beste atzizki hau dugu: -(e)NA.

Azken hau nahiko kontestu mugatuetan ager dakiguke bakarrik. Honengatik ez da bestea bezain emankorra. Atzizki honetaz baliatu ahal izateko perpaus nagusiaren aditzak **ziurtasuna** edo, adierazi behar du.

Atzizki hau, muga horiek direla eta, behin agertu zaigu 1828ko testuan. 1858koan, aldiz, kontestu berean -(e)LA atzikia dugu. 1872koan, aldiz, ez da behin ere agertzen.

1828ko dotrina

E. Ecusi dogu Cristiñaua zariana, Cristiñauaren uceneti, ta señaleti:...

13. orr.

1858ko dotrina

Ecusidogo Christiñeu sariala, Christiñeuen usen eta señaleti; esan eguidesu orain:...

3. orr.

2.2.1.1.- Zehargalderak:

-(e)N

1828ko dotrina

E. Lelengoa yaquitia **cer** sinistuco daben: bigarrena **cer** escatuco daben; irugarrena **cer** eguin, edo obrauco daben; eta laugarrena **cer** artu, edo errecibiduco daben.

14. orr.

I. Celan yaquingo dau **cer** errecibiduco daben ?

15. orr.

Ecusi dogu **celan** daquizun **cer** sinistu, ta **cer** escatu biar dozun: dacusgun orain celan daquizun **cer** obrau biar dozun.

36/37. orr.

...; contua ateretan dabela batec mandamentu bacochian **ce-tan** uts eguin daben, obraz, berbaz, pensamentuz, edo desioz;...

61/62. orr.

E. Comulgau baño leenago pensau ondo **nor dan** euren biyotzetara datorren Jaun andiya; eguin fedeco, esperantzaco, eta caridadeco actoac; artu humiltasun eta bildur santu andiyagaz:...

74. orr.

1858ko dotrina

E. Lelengoa **ser** sinistuco daben: bigarrena **ser** escatuco daben; irugarrena **ser** obraduco daben: eta laugarrena **ser** errecibiduco daben.

3. orr.

I. Selan iaquin godau **ser** erresibiducodaben ?

4. orr.

Ecusi dogu ya **ser** sinistu, eta **ser** escatu biardan; ecusi daigun orain **selan** daquisun **ser** obrau biardan: esan eguidesu

16. orr.

..., discurriran dabela mandamentu bacochian **setan** faltau daben obras, verbas, eta pensamintuz;...

23. orr.

E. Comulgueu baño lenago considerau **nor dan** gueue gana datorren Jaun soberanue; eguin fedeco, esperanzaco eta caridadeco actoac; erresibidu humiltasun, eta erreberensi andiegas,...

28. orr.

Ruth-en liburua (1872)

..., eta zeuc duin izatia jakiteco nor ni **nor** nazan, izanic estranjeriaco emacume bat ?

II - 10

...: eta berac esango deutsu, **cer** eguin biar dozun.

III - 4

..., eta contentautan ez pasaitia declarau naizu au berau, jaquiteco **cer** eguin biar dodan.

IV - 4

Eta euqui deizun **noc** consolau daijen ceure arimia eta sostenidu dajen zure sartzarua.

IV - 15

-Ø

1872ko testuan, zenbaitetan, -(e)N atzizkirik ez duten kasuak dauzkagu:

Ruth-en liburua (1872)

Eta Boozec ezan eban eutsan agurai eta errico guztiai: Ceubec zare gaur testiguac **celan** sartuten **naz** posesiñoan Elimechen, Chelionen eta Maalonon ondasunetan,...

IV - 9

Eta Noemic esan eutsan: Ichoizu alabia, icusi daigun artian **ce** amaja **dau** asunto onec.

III - 18

2.2.2.- Baldintzazkoak:**2.2.2.1.- jokatuak****BA-****2.2.2.1.- jokatuak:****1828ko dotrina**

Bigarren, urtian bein edolabere confesetia, edo leenago eriyotzaco peligruric **badago**, edo **comulgauco bada**.

48. orr.

Elessa Ama Santiaren Sacramentuac dira zazpi: lelengo bostac dira biar biarrac izatez edo borondatez, ceintzaco baga ecin salbau leiteque guizona **echiten badituz** desprecioz: beste biyac dira borondatezcoac.

54. orr.

I. Eta **acordetan bayaco** guero, cer eguin biar dau ?.

64. orr.

E. Confesoriac emoitén deustanian **badauco** cunplyetaco gogoa, bai Jauna; baya confesoriac emoitén deustanian **ez-padauco** cunplyetaco gogoric, ez Jauna: guero cunplidu arren bere.

67. orr.

I. Ostiya consagrada **erdibituten**, edo **apurtuten bada**, erdibituten ete da Cristoren gorputza ?.

73. orr.

E. Confesau leenago, ta **ecin confesau bada**, artu contriciónzco damua.

76. orr.

1858ko dotrina

Bigarrena, confesetia urtian bein edolabere, edo lenago eriyotsaco peligruric **badago** edo **comulgueuco bada**.

18. orr.

Elexaco Sacramentu santuac dire saspí, lelengo bostac dire necesidadecoac iseites edo vorondates, seinsuc baga esin salbauliteque guisona **echiten baditus** menosprecios; beste bieci dire borondatescoac.

20. orr.

I. Eta **acordetan baiaco** guero ser eguin biardau ?.

24. orr.

E. Confesoriac aguinduten dausténian **badauco** intensiñoa cunplacataco bai Jaune: baie confesoriac emoitén deusténian **espadauco** intensiñoeric cunplacataco es jaune guero cumpliu balegui bere.

25. orr.

I. Ostie consagrada **erdibitu** edo **apurtuiten bada**, erdibituitenda Jesuchristoen gorputse ?.

28. orr.

E. Confesau lenago, jaune, eta **esin confesau bada**, eguin contrisiñooco actobat.

29. orr.

2.2.2.2.- jokatugabeak**...AZKERO****Ruth-en liburua (1872)**

...: Au, eta au baño gueyago eguindayela neugas Jaunago, eriyotzia **espada**, beste gausaric estago seuganic apartauco nabenic.

I - 17

...: **Aguinduten banosu** yuango nas solora eta batuco dodas eguiterien escuetatic escapetan diresan gara...

II - 2

..., eta egarriric **badaucazu** bere, juan zaite maletara eta edaizu urati neure criaduac edaten dabena.

II - 9

...: eta eguna arguituten asten dan ain laster, **gure badau** gueratu ceugaz urcotasun derechoagaitic, izin dila ordu onian: baie berac **gura ez padau**, neuc duda baric artuco zaitudaz, bici da Jauna. Loeguizu goxera arte.

III - 13

...: eta ceuretztat da ascozaz obeto da, zaspí seme **baleuquez** baño.

IV - 15

2.2.2.2.- jokatugabeak:**...AZKERO**

Jokatugabeko aditzekin erabiltzen den forma hau, 1828ko dotrinan baino ez da agertzen:

1858ko dotrina

E. Bai Jauna; eta ez cunplyetia, edo lar luzatutia da pecatu mortala,

- gauza pisuzcoaren gania izan **azquero**. 40. orr.
- E.** Bai, Jauna, norberaren erruz izan **azquero**. 57. orr.
- E.** Edoceinec, ondo batiatuten yaquin **azquero**. 58. orr.
- E.** Biar dan leguez errecibidu **azquero**, izan dintzat gueure arimeen mantenimentua, eta graciya aci, ta gueyagotu deiguntzat. 70. orr.

2.2.3.- Erlatibozkoak:**2.2.3.1.- jokatuak**

- (e)N + izena
- (e)N + deklinabide atzikia
- ZEIN / ZEINTZU... -(e)N
- ZEIN / ZEINTZU... - Ø
- NON... -(e)N
- ZELANGOAK... -(e)N
- NO(REN)GANA... -Ø
- NORI... -(e)N

2.2.3.1.- jokatuak:**-(e)N + izena**

Perpauk erlatiboak osatzeko erarik arruntena eta ugariena dugu honakoa. Asko eta asko dira aztergai ditugun testuotan. Hain da hala ezen luzeegia gertatuko bailitzaiguke kontestu guzti guztiak hemen ezartzea. Adibide gisa, besterik gabe, daku-sagun zenbait:

1828ko dotrina	1858ko dotrina	Ruth-en liburua (1872)
BIAR DIRIAN BAIYEZCOA-CAZ	E. Jesu Christoren fedia dauquen guisona ,...	...; segaitic ce, su juaten sarran lecura , neuc bere juan-gonas; eta seu bisisarran lecuran , neuc bisiconas;...
1. orr.	1. orr.	I - 16
Laugarrena, sinistu yatzi zala infenuetara, eta atera cituzala bere etorrera santuaren beguira egozan Guraso Santuen arimac .	E. Bere poderioagas bacarric eiten dabelaco gure daben gustie ?	...; eta biurtu san bariro Bethlhemera, garagarren eguitaldia eldu san demporaraco .
9. orr.	6. orr.	I - 22
Laugarren Partia, ceinetan espliquetan dirian artu biar dirian Sacramentuac .	I. Ser esan gure dau acaberran esaten dosun verbiac Amen ?.	...: eta jazo zan a soloa zala Booz erechon guizon batena , Elimelechenen senidia arteco batena.
53. orr.	14. orr.	II - 3
I. Eta cer eguingo da gal-tzaiten, edo botetan dan seña bada denporabacoa, ta guztiz chiquerra ?.	E. Usu errasoecoa dauquen edoseinec .	Eta esan eutzan Boozec eguitarien cuidadure eguan gaziari :...
59. orr.	21. orr.	II - 5
E. Comulgau baño leenago pensau ondo nor dan euren biyotzetara datorren Jaun andiya ; eguin fedeco, esperantzaco, eta caridadeco actaco;...	E. Len ondo confesau senic, eta artian eguin ditusen pecatuec gogora edo memorira ecartia ?.	Berac erantzun eban: Aguin-duten nozun guztia eguingot.
74. orr.	23. orr.	III - 5
	E. Comulgau baño leenago considera nor dan gueu gana datorren Jaun soberanue ; ...	Eranzun eban erri-gustiac atian euban erri gustiac eta aguriac:...
	28. orr.	IV - 11

-(e)N + deklinabide atzizkia

Jakina denez, honakoa aurreko kasu bera da, zeinetan menperakuntza egiteko bidea ematen digun izena desagertu den eta beroni dagozkion deklinabide atzizkiak aditzaren -(e)N atzizkiari eransten zaizkion. Lehenagokoa bezala, kontestu askotan agertzen zaigu forma hau ere:

1828ko dotrina	1858ko dotrina	Ruth-en liburua (1872)
Aita guria Ceruetan zagozana:...	...eta ofreciduric dagoana vere serbicio santure.	Eta Elimelech bere senar-rrac euquen senide bat, guison poderoso eta gustis aberatza, Booz deituten sana.
4. orr.	1. orr.	II - 1
E. Ecusi eztoguna sinistutia.	E. Ecusi estogune sinistutia.	Eta ona-emen bera etorri zala Bethlehem-etic, eta ezan eutzan eguiter egozani:...
15. orr.	4. orr.	II - 8
E. Gloriya emoiten deutzalaco bere gracyan ilten danari.	E. Emaitendautselaco glorie vere gracyan ileitendanari.	..., eta egarriric badaucazu bere, juan zaite maletara eta edaizu urati neure criaduac edaten dabena.
19. orr.	7. orr.	II - 9
E. Eguin daigula Jangoicoaren borondatia lurrian gagozanoc, Ceruan dagozanac eguiten daudeen leguez.	E. Eguindaigule Jangoicoen vorondatia lurrean gagosanoc bienaventuraduec eiten daudien legues Ceruen.	Bedeincatua izin dila ceugaz misericordia euki dabena.
32. orr.	13. orr.	II - 19
E. Da Ceruan dagoanaren imagina, eta irudi bat.	E. Da Ceruetan dagoanen imagine eta semejansabat.	Cegaiti ce eri gustia neure urien atez barrure bici danac daki, zu zariala birtutezco andria.
35. orr.	14/15. orr.	III - 11
E. Guri acordarazoteco Ceruan dagoana, eta bere imaginia dalaco erreberenciya eguin daiyogunzat.	E. Gu veretati acordaugaite-sansat Ceruetan dagoana.ganic, eta dalaco vere imaginia erreverensiadu daigun.	Cegaitic ce ez tago beste ceneridic ez bada pazara zu lenengoa zariana, eta neu bigarena nazana.
35. orr.	15. orr.	IV - 4
E. Quentzaiteco pecatu originala, ta beste, batiatuten danagan, aurquituten dan edocein.	E. Quensaiteco pecatu originala, eta veste edoseimbere aurquituten dana batiatuiten danagan.	
56. orr.	21. orr.	

Ondorengo kasu guztiak multzo berean sar genitzake. Menperakuntza egiteko galde hitz batez eta aditz jokatuan kokatzen den -(e)N atzizkiak baliatzen da. Egitura honetako perpaus erlatiboak testu guztietan agertzen zaizkigu.

Dena den, geroxeago ikusiko dugun bezala bada salbuespenen bat.

ZEIN / ZEINTZU... -(e)N

1828ko dotrina	1858ko dotrina	Ruth-en liburua (1872)
E. Guizon bat, ceinec daucan Jesu Cristoren fedia, Bautismu Santuan artu ebana, eta cein dagoan bera serbiyetaco opaturic.	E. Jesu Christoren fedia dauquen guisona, sein artu eben Bautismu santuen,...	Seinsuec escondu sirian Moabitaco andracas, isenes batac Orpha, eta bestiac Ruth:...
10. orr.	1. orr.	I - 4
E. Dalaco Cristo curtzificaduaren irudiya, ceinetan erredimidu guenduzan.	E. Dalaco Christo cursifique-duen figuria, seinetan erredimidu guendusen.	Seintzubei erantzun eutzuen berac, biurtu saguides atzera neure alabac;...
11. orr.	1. orr.	I - 11

E. Iru distinta, **ceinzuc** dirian Aitia, Semia, eta Espiritu Santua.

18. orr.

I. Cer derechazu dala á Infernuia, **ceinetara** yatzi **zan**, il azquero, Cristo gueure Jauna ?.

24. orr.

E. Jangoicoac ezteigula ichi yausten, ez consentitan pensamentu, ta tentaciño deunguetan, **ceintzuc**az Demonioac pecatuan yausi eraguin gura deuscun.

33. orr.

E. Iru distintac, **seinsuc** dirian Aitia, Semia, eta Spiritu Santue.

6. orr.

I. Ser entenditan dosu infernuegaitic, **seinetara** yatsisen Cristo gueure Jaune ilasquero

9. orr.

E. Jangoicoac es taigule echi yausten, da es consentitan pensamentu ta tentaciño deunguetan, **seinsuques** Demonioac gure daben yausigatesan pecatuen.

13/14. orr.

Seintzubei esan eutzan: Es neidesube deitu Noemi: (au da, **Noemi**, galanta) deitu neisube Mara, (au da garratza:) Gustis-poderosoac garrastasunes betenabelaco.

I - 20

Ceiñeri berac erantzun eutsan:...

II - 11

..., neurri cituan sei celemiñe garagar eta imini cituzan gañian; **ceiñec** eurecaz cargauric sartu **zan** urian.

III - 15

Lehen aipatutako salbuespena galde hitz honi dagokio. Lehenagoko bera dugu, baina adizkia inongo atzizkirik gabe agertzen zaigu funtzio bera betetzen duela:

ZEIN / ZEINTZU... -Ø

1828ko dotrina

E. Bacarric Semia, **ceineri**, guizon eguin azquero, derecho JESU Cristo.

19. orr.

..., Jangoico izatia galdu bago, gueratu zan guizon eguinic; **ceinari** derecho JESU Cristo.

22. orr.

Elessa Ama Santiaren Sacramentuac dira zazpi: lelengo bostac dira biar biarrac izatez edo borondatez, **ceinzuc** bago ecin salbau leiteque guizona echiten badituz despicioz: beste biyac dira borondatezcoac.

54. orr.

E. Bai Jauna, bagoz beste batzuc, **ceintzuei** derechee graciya lagungarriyac, eta arimaco arguialdiyac,...

55. orr.

E. Ezconduteco, ta ezconduei graciya emoiteco, **ceinegaz** alcarregaz baquian vici ditezan, eta Cerureco aci daguiyezan seme alabac.

77. orr.

1858ko dotrina

Laugarrena Santissime Trinidadeco bigarren Personiac artu ebasan beragan gorputs, ta arime oneic; eta gueratusen len Jaungoico sana guizon eguinic, **seineri** derecho Jesu Cristo.

9. orr.

E. Da fiel christiñeuen congregacioia **seinen** burue da Aite Santue.

10. orr.

E. Da Erromaco Pontifice Christoen viquerioa lurrian, **seineri** gustioco gagos obligueduric obedesitan.

10. orr.

E. Da iseite divinubet, **seinec** eguitendau guisona Jangoicoen seme, eta ceruco erederu.

21. orr.

Ruth-en liburua (1872)

Ruth obligauric nesesidadiagaitic, doba eguiter Boozeco solora, **seinec** artuten dau atzeguinez beteric.

II - 0

Jaunac emon deizula zarie ceure obracaz eguitadiacaz conformidadian eta artu daizula benetaco premio oso bat Israeleco Jaun Jaungoicoagati, nogana etorri zara eta **ceinen** egopean ipiñi zara.

II - 12

Au Booz au, **ceinen** criadacaz sagoz batzanduric soloan, da gueure zenidia...

III - 2

Eta icusiric pasetan a cenidia, **ceinen** gañian len berba-eguin dogu, deitu **esquero**-ten deutse-la bere isenetic, esan eutsan:...

IV - 1

Cegaitic ce jajo da ceure erreñatic, **ceiñec** ametan zaitu: eta ceuretzat da ascozaz obeto da, zaspí seme baleuquez baño.

IV - 15

Usau eguisu zuc neure derecha, **ceinen** protestacio-noa ez eukiteco gogo andiegaz eguiten dot.

IV - 6

NON... -(e)N

1828ko dotrina

Non il gura izan eban gu ateretiarren gueure pecatuaren ta areriyo gaistoaren aguindupetaric.

3. orr.

1858ko dotrina

E. Es condenaduec egosan lecure, es pada Limbora, **non** egosan justoac.

9. orr.

ZELANGO(AK)... -(e)N

1828ko dotrina

...: contu daigun, pecatuen gorrotoa, humiltasuna &a. edo gogo onen batzuc artzaiten doguzala, **celangoac** dirian, ondo confesetaco, bizitza obatuteco, edo besteren batzuc.

30. orr.

I. Cer da oraciño bocala ?.

E. Da berbazac eguiten dana, **celangoa dan** eguiten doguna Aita guria esaten dogunian.

31. orr.

E. Jangoicoac, pecatuan yausi ez eguiteco, eta obra onac eguiteco emoitzen deuscuzan socorru, edo laguntasun batzuc, **celangoac** dirian Ser-moiac, egenplu onac, uste uste baco eriyotzac; eta argui-aldi batzuc,...

